



2012KO LAN-MERKATUAREN ERROLDA

EMAITZA NAGUSIAK

Azken txostena: 2013ko urriaren 30a

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE (Zerbitzu Zuzendaritza)

AURKEZPENA

Txosten honek 2012ko Lan Merkatuaren Erroldaren emaitza nagusiak biltzen ditu, Eskari Fasean, (LME-Eskaria 2012). Emaitza horiek, estatistika-eragiketan kontuan hartutako hainbat alderdiri buruzkoak dira, funtsean hauei buruzkoak:

- * EAeko sare ekonomikoaren ezaugarri orokorrak: Establezimenduak eta enpleguak.
- * Enpleguaren barneko egitura.
- * Lan-merkatuaren dinamika.
- * Establezimenduetan ematen den prestakuntza
- * Modernizazioa, maila teknologikoa, berrikuntza eta nazioartekotzea.
- * Finantza- eta merkatu-egoera.

Estatistika-tratamendua Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 6.803 establezimenduko lagin batean lortutako informazioa oinarri hartuta garatu da, Administrazioari buruzko datuak barne direla. Establezimendu horietan 296.649 enplegu egon ziren, EAEn dauden guztien % 33,1.

LMEn (Eskaria) berariazko ustiapenak euskal ekonomiaren sektore eta adar gehienak biltzen ditu. Hala ere, hiru adar hauek baztertuta geratzen dira: lehen sektorea, etxeko zerbitzua eta Administrazio Publikoa, zehatz-mehatz hartuta. Azken kasuan, hezkuntza, osasuna edo gizarte zerbitzuak edo enpresa publikoen sistema barnean hartzen ez dituen Administrazioaren zatia da. Zati hori Administrazio Publikoa, Defentsa eta Derrigorrezko Gizarte Segurantza epigrafean sartzen da.

2012ko LMEn (Eskaria), zehaztasunez aztertu den ekoizpen-sistemaren zatian guztira 176.426 establezimendu bildu dira. Lantoki horiek sortu duten lanpostu-kopurua, 2012ko urrian, 814.455 izan zen. Aurkakoa zehazten ez bada, aurkeztu diren datuak establezimenduen eta enpleguaren gehieneko mailak azaldu dituzten establezimenduenak dira.

Nahiz eta emaitzen txostenean aurkezten den informazioak Administrazio Publikoa kontuan ez hartu, 2012ko LMEn (Eskaria) badaude ekonomia-adar horretako establezimendu eta enplegu kopuruari buruzko datuak. Horrela, Administrazio Publikoa, Defentsa eta Derrigorrezko Gizarte Segurantza adarrean 2012an guztira 41.567 enplegu egon ziren. Kontuan hartu ez diren beste bi adarretan (lehen sektorea eta etxeko zerbitzua), zenbatetsitako enpleguaren kopuru osoa 40.628 da. Beraz, 2012ko urrian, euskal sistema ekonomikoak guztira 896.650 enplegu sortu zituen.

EMAITZA NAGUSIAK

1 ENPLEGUAREN BEHERAKADA EUSKADIN KRISI GARAIAN

1.1 Enpleguak behera egin du % 9 baino gehiago 2008 eta 2012 artean

2008ko urriaren eta 2012ko urriaren artean¹, euskal ekonomiak sortu duen enplegua, guztira, % 9,1 jaitsi da, eta lanpostu kopuruak behera egin du 986.569tik 896.650era.

Enplegu-galera nabarmenagoa da LMEn beren-beregi aztertutako sektoreetan (guztietan lehen sektorean, etxeko zerbitzuan eta Administrazioa zehatz-mehatz hartuta). Sektore horietan, lanpostu-kopuruak behera egin du 901.801etik (2008) 814.455era (2012). Beherakada % 9,7koa izan da, establezimenduen bolumenean izandako % 7,7 baino handiagoa. Aztertutako euskal ekonomiaren zatian, 2012ko enplegua 2004ko kopuruetatik beherago ere dago (urte hartan 837.752 lanpostu izan ziren).

1. taula
Establezimendu kopuruaren eta enpleguaren bilakaera. 1996-2012
(Datu absolutuak eta lau urteko bilakaera, ehunekotan)

Urtea	Datu absolutuak		Lau urteko bilakaera (ehunekotan)	
	Establezimenduak	Enpleguak	Establezimenduak	Enpleguak
1996	146.548	639.592		
2000	166.647	745.121	13,7	16,5
2004	174.471	837.752	4,7	12,4
2008	191.233	901.801	9,6	7,6
2012	176.426	814.455	-7,7	-9,7

1.2 Eraginpean dauden jarduera-eremu nagusiak

1.2.1. Enpleguaren beherakadaren % 60 eraikuntzan, metalaren industrian eta manufaktura-industrian metatzen da

2008-2012 denbora-tarteko krisiak modu nabarmenean eragiten dio eraikuntzari, sektoreko enpleguak % 24,5 egin baitu behera. Galera erlatiboak % 16,2 dira industrian, baina sektore horrek biltzen du enplegu-galeraren zatirik handiena: % 41,1, eraikuntzaren % 25aren aldean. Batera hartuta, aztertutako bi sektoreek 2008tik 2012ra galdutako lanpostuen % 66,1 biltzen dute, zerbitzuen sektoreari egotzi ahal zaion % 33,9aren aldean. Ekonomiaren hirugarren eremuan, enpleguaren beherakada sektore horretan % 5koa izan da 2008-2012 laurtekoan.

¹ Datu-bilketaren erreferentzia-data LME (Eskaria) egin zeneko urteko urriaren 31 da.

Enpleguari dagokionez beheranzko joera daukaten adar-talde handiak kontuan hartuta², egiaztatu da krisiaren eraginik handiena –2008tik 2012rako aldian % 15etik gorako enplegu-galera–, metalaren industriak, manufaktura-industriak eta eraikuntzak jasan dutela. Hiru ekoizpen-eremu horietan bildu da beheranzko joera izan duten adarretan ikusitako enplegu-galeraren % 60,5. Aztertutako industria-adarren bi taldeei % 37,9 egotzi ahal zaio.

Enplegu-krisia, hala ere, zerbitzuen sektoreko adar batzuetara indartsu hedatu da

Merkataritzaren, ostalaritzaren eta konponketen eta beste zerbitzu batzuen adarrek enplegu-bolumenaren beherakadaren beste % 28,1 bildu dute. Adar bakoitzaren barruan, lanpostu galera erlatiboak % 10 eta % 13,1 bitartekoak izan dira. Gainerako % 11,4a garraio eta komunikazioei eta merkataritza-zerbitzuei egotzi ahal zaie, galera erlatibo neurritsuagoekin, lanpostuen % 5 inguru.

2008-2012 aldian, lanpostu-kopuruaren gorakada energiaren industrian (+% 3,4) eta hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak biltzen dituen adar-taldean (+% 6,6) soilik gertatu da.

2.a taula
Enpleguaren bilakaera, jarduera-sektoreen arabera. 2000-2012
(Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Sektorea	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
Industria	226.728	30,4	240.516	28,7	221.728	24,6	185.863	22,8	-16,2	41,1
Eraikuntza	57.903	7,8	80.887	9,7	89.305	9,9	67.468	8,3	-24,5	25,0
Zerbitzuak	460.490	61,8	516.349	61,6	590.767	65,5	561.124	68,9	-5,0	33,9

2.b taula
Enpleguaren bilakaera, jarduera-adarren arabera. 2000-2012
(Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Jarduera-adarra	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
Energia-ind. eta antzekoak	33.568	4,5	22.537	2,7	17.279	1,9	17.861	2,2	3,4	0,0
Metalaren ind.	130.061	17,5	150.784	18,0	148.902	16,5	120.937	14,8	-18,8	29,0
Manufaktura-ind.	63.098	8,5	67.195	8,0	55.548	6,2	47.065	5,8	-15,3	8,8
Eraikuntza	57.903	7,8	80.887	9,7	89.305	9,9	67.468	8,3	-24,5	22,7
Merkataritza/Ostalaritza/Konponk.	167.672	22,5	182.742	21,8	207.742	23,0	186.987	23,0	-10,0	21,6
Garraioak/Komunikazioak	47.179	6,3	49.467	5,9	53.840	6,0	51.204	6,3	-4,9	2,7
Merkataritza-zerbitzuak	100.449	13,5	129.420	15,4	154.519	17,1	146.173	17,9	-5,4	8,7
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerb.	113.971	15,3	112.146	13,4	126.786	14,1	135.141	16,6	6,6	0,0
Beste zerbitzu batzuk	31.219	4,2	42.574	5,1	47.881	5,3	41.619	5,1	-13,1	6,5

² Denborazko konparazioak errazteko, konparazio-erreferentzia gisa EJSN 93 mantendu da.

1.2.2. Sektore pribatua

2008 eta 2012 bitartean, EAeko lanpostu-bolumenaren beherakadaren % 96,8 ekonomiaren sektore pribatuan gertatu zen. Denbora-tarte hartan, enplegu-galera erlatiboak kasu horretan % 11,1ekoak izan ziren, argi eta garbi gizarte-ekonomiako establezimenduei dagokien % 3,4tik eta sektore publikoko zentroen % 1,1etik gora.

3. taula
Enpleguaren bilakaera, establezimendu-motaren arabera. 2000-2012
 (Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Mota	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
Sektore publikoa	79.284	10,6	76.384	9,1	83.160	9,2	82.266	10,1	-1,1	1,0
Gizarte-ekonomia	50.239	6,7	59.785	7,1	55.812	6,2	53.940	6,6	-3,4	2,1
Sektore pribatuko gainerakoak	615.598	82,6	701.584	83,7	762.829	84,6	678.248	83,3	-11,1	96,8

1.2.3.50 enplegatu baino gutxiago dauzkaten zentroak

Lanpostu-kopuruaren beherakadaren eraginpean 2008 eta 2012 bitartean hainbat motatako establezimenduak egon ziren, tamainaren arabera. % 10etik gorako galerak lantokirik txikienetan detektatzen dira, 3 langile baino gutxiagokoetan, baina 10 eta 49 lanpostu bitartekoetan eta 250 eta 999 langile bitartekoetan ere bai. Beherakadan dauden taldeetan, 2008 eta 2012 bitartean galdutako lanpostuen % 43,9 soil-soilik 10 eta 49 langile bitarteko zentroei dagokie; beste % 30,7, 10 enplegu baino gutxiagoko establezimenduei dagokie; % 22,5, 250 eta 999 bitarteko langile dituztenei eta gainerako % 2,8 beste mota batzuetako zentroei. Multzoan hartuta, enplegu kopuruetan behera egiten ari diren taldeen artean, 2008 eta 2012 bitartean galdutako lanpostuen % 74,6 50 enplegatu baino gutxiagoko ekoizpen-zentroei dagokie.

Horren aldean, enplegu kopurua mantendu egiten da 50 eta 249 enplegu bitarteko zentroetan (% 2ko beherakada 50 eta 99 langile bitarteko zentroetan eta % 3,4ko gorakada 100 eta 249 bitartekoetan), eta neurri handi batean, 1.000 lanpostu baino gehiagokoetan ere bai (-% 1,7). Beherakada neurritzkoa da 3 eta 9 enplegu bitarteko taldean ere bai (-% 3,6).

4. taula
Enpleguaren bilakaera, establezimenduen tamainaren arabera. 2000-2012
 (Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera
 eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Tamaina	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
3 baino gutxiago	163.800	22,0	174.599	20,8	189.169	21,0	167.157	20,5	-11,6	24,5
3 eta 9 bitartean	131.718	17,7	148.754	17,8	158.482	17,6	152.820	18,8	-3,6	6,3
10 eta 49 bitartean	187.165	25,1	227.071	27,1	249.229	27,6	209.711	25,7	-15,9	43,9
50 eta 99 bitartean	67.428	9,0	88.270	10,5	90.514	10,0	88.667	10,9	-2,0	2,1
100 eta 249 bitartean	66.521	8,9	78.213	9,3	77.785	8,6	80.446	9,9	3,4	0,0
250 eta 499 bitartean	50.846	6,8	53.786	6,4	57.493	6,4	41.108	5,0	-28,5	18,2
500 eta 999 bitartean	30.654	4,1	29.088	3,5	39.232	4,4	35.322	4,3	-10,0	4,3
1000 edo gehiago	46.989	6,3	37.971	4,5	39.896	4,4	39.224	4,8	-1,7	0,7

Aurkeztutako datuek erakusten dute enpleguaren bilakaera konparatua txarragoa izan dela 10 eta 49 enplegu bitarteko zentroetan edo 250 eta 999 langile bitartekoetan (hurrenez hurren, 10 langile baino gutxiagoko establezimenduekin edo 50 eta 249 lanpostu bitartekoekin). Lanpostu kopuruaren beherakada batez ere enpresa txiki eta ertainetan gertatu arren, 2008 eta 2012 bitartean establezimenduen batez besteko tamainak ere beheranzko joera izan du (zentro bakoitzeko 4,6 enplegu 2012an; 4,7 2008an eta 4,8 2004an). Hori paradoxikoa da, baina hain zuzen ere, azaldu dugun egitate horrek azaltzen du egoera hori. Bilakaera hori are deigarriagoa da industrian, industria-zentroen batez besteko tamainak behera egin du 2004ko establezimendu bakoitzeko 15,9 enpleguetatik 2008ko 14,9etara eta 2012ko 12,8etara.

5. taula
Establezimenduen batez besteko tamaina (enplegu/establezimendu) jarduera-sektore bakoitzeko 2004-2012

Sektorea	2004	2008	2012
GUZTIRA	4,8	4,7	4,6
Industria	15,9	14,9	12,8
Eraikuntza	3,4	3,3	2,9
Zerbitzuak	3,8	4,0	4,0

1.2.4. Obrako langileak

2008 eta 2012 bitartean atzeraldian dauden kategorian egondako enplegu-murrizketaren % 82,9 lotuta dago *Kualifikatutako beste langile batzuk* eta *Kualifikatu gabeko langileak* kategorietan dauden langileei. Egoera horien % 71,2, talde horretan mota bateko edo besteko kualifikazioa daukaten pertsonak jasaten dituzte. Kualifikatutako langileen enpleguak behera egin du % 20,2 aztertu den krisi-laurtekoan. Proporzio hori % 10etik gorakoa da kualifikatu gabeko langileen artean (-% 12) eta administrazioko langileen artean (-% 10,9) ere.

6. taula

Enpleguaren bilakaera, lanbide-kategoriaren arabera. 2008-2012

(Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Lanbide-kategoria	2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza	Beherakadaren
GUZTIRA	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
<i>Enplegu autonomoak</i>	73.481	8,1	81.274	10,0	10,6	0,0
<i>Autonomoak ez diren enpleguak</i>	828.320	91,9	733.181	90,0	-11,5	0,0
Zuzendaritzako langileak	62.344	6,9	69.788	8,6	11,9	0,0
Teknikariak	175.519	19,5	168.739	20,7	-3,9	6,6
Erdi-mailako arduradunak	38.341	4,3	37.447	4,6	-2,3	0,9
Administrazioko langileak	90.248	10,0	80.377	9,9	-10,9	9,6
Bestelako kualifikatuak	361.600	40,1	288.559	35,4	-20,2	71,2
Prestakuntzarik gabeko langileak	100.268	11,1	88.271	10,8	-12,0	11,7

Aldiz, gora egin du zuzendaritzako langileen eta autonomoen enplegu-kopuruak

Enplegu-beherakadak neurrizkoagoak dira teknikarien (-% 3,9) eta erdi-mailako arduradunen artean (-% 2,3). 2008 eta 2012 bitartean, aldiz, gora egin du % 10ean langile autonomoen (% 10,6)³ eta zuzendarien (% 11,9) bolumenak. Talde horiek biek guztira 15.238 enplegu berri sorrarazi dituzte 2008-2012 laurtekoan.

1.2.5. Aldi baterako kontratuak dauzkaten biztanleak (enplegu-kopuruaren beherakadarik handienak iraupen mugagabeko kontratuak dauzkaten eragin dien arren)

2008-2012 laurtekoko enplegu-galerak nabarmen eragin die iraupen mugatuko edo aldi baterako kontratuak dauzkaten biztanleei. Kasu horretan % 23,7ko murrizketa ikusi da 2008ko enplegu-kopuruetan, argi eta garbi iraupen mugagabeko biztanleen % 7,8 eta soldatarik gabeko biztanleen % 4 baino kopuru handiagoa. Hala ere, laurtekoan gertatu den beherakadaren banaketa osoan, galera guztien % 50,2 iraupen mugagabeko kontratuak dauzkaten biztanleei dagozkie, enpresarekiko iraupen mugatuko/aldi baterako harremana daukaten biztanleen % 41,1etik eta soldatarik gabeko biztanleen % 8,7tik gora.

7. taula

Enpleguaren banaketa kontratu-harremanaren arabera. 2000-2012

(Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Harreman-mota	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
Mugagabea	417.282	56,0	495.948	59,2	562.511	62,4	518.663	63,7	-7,8	50,2
Mugatua	137.216	18,4	159.998	19,1	151.424	16,8	115.514	14,2	-23,7	41,1
Soldatarik gabea	190.624	25,6	181.805	21,7	187.866	20,8	180.278	22,1	-4,0	8,7

³ Zehaztu behar da LMEn (Eskaria) langile autonomoei buruz erabili den kontzeptua urteko batez besteko enpleguari dagokionez soldatapeko pertsonarik ez dagoen egoeretan erabiltzen dela.

1.3 Enplegu-galeraren lurralde-dimentsioa

1.3.1. Jaitsiera handiagoa izan da termino erlatiboetan Bilbon eta Ezkerraldean

Enpleguaren jaitsiera oso antzekoa da Lurralde Historiko batzuen eta besteen artean. Gutxienekoa Arabako % 9,3a izan da, eta gehienekoa Bizkaiko % 9,8a. Azken lurralde horrek, ordea, pisu demografiko handiagoa duenez, egon diren galera guztien % 51,6 bildu ditu.

Lurraldeen araberako itxurazko antzekotasunetik harago, datuak eskualdeka aztertuz ikusten da Bilbo eta Ezkerraldea direla enplegu-krisirik larriena jasan duten eskualdeetako bi, hurrenez hurren lanpostuen % 11,1 eta % 15,1 galdu baitituzte 2008 eta 2012 bitartean. Eskualde bi horiek, euren pisu demografikoarengatik, laurtekoan galdu diren enplegu guztien % 43,3 bildu dituzte.

1.3.2. Baina eragin kuantitatiboa handiagoa izan da Araban eta Gipuzkoan

Enpleguaren beherakadek, dena dela, antzeko intentsitatea daukaten beste euskal eskualde batzuetan. % 11,5 eta % 12,5 bitartekoak izan dira Aiaraldean eta Debabarreanean, eta % 8,4 eta % 9,8 bitartekoak Arabako eta Gipuzkoako gainerako eskualdeetan. Horren ondorioz, kuantitatiboki, lanpostu-galera handiak izan dira eskualde horietan, Bilbon eta Ezkerraldean egon direnak baino handiagoak, multzoan hartuta. Hain zuzen ere, Araban eta Gipuzkoan 2008 eta 2012 bitartean egondako lanpostu-galeren % 48,4 gertatu dira. % 34,7, Donostialdea eta Gasteiz eskualdeei dagokie.

Enpleguaren beherakada txikiagoa da, aldiz, Bizkaiko eskualde batzuetan. Bizkaiko kostaren kopurua % 7,7 da, baina Durangaldean, ordea, % 5,5 da, eta Eskuinaldean % 2,1 besterik ez. Hiru eskualde horietan, 2008-2012 laurtekoan galdutako lanpostuen % 8,3 besterik ez da galdu.

8.a taula
Enpleguaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera. 2000-2012
 (Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Lurralde Historikoa	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
Araba	112.616	15,1	133.178	15,9	142.072	15,8	128.801	15,8	-9,3	15,2
Bizkaia	374.958	50,3	417.402	49,8	460.717	51,1	415.647	51,0	-9,8	51,6
Gipuzkoa	257.547	34,6	287.173	34,3	299.012	33,2	270.007	33,2	-9,7	33,2

8.b taula

Enpleguaren bilakaera, eskualdeka. 2000-2012

(Datu absolutuak eta % bertikalak urte bakoitzeko. Lau urteko bilakaera eta enplegu-beherakadaren banaketa 2008/2012 aldian, ehunekotan)

Eskualdea	2000		2004		2008		2012		2008/2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Beherakadaren %
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	-9,7	100
Gasteiz	94.496	12,7	112.886	13,5	122.007	13,5	111.241	13,7	-8,8	12,3
Aiaraldea	18.121	2,4	20.292	2,4	20.064	2,2	17.560	2,2	-12,5	2,9
Eskuinaldea	56.586	7,6	72.834	8,7	80.498	8,9	78.792	9,7	-2,1	2,0
Bilbo	145.970	19,6	149.028	17,8	161.895	18,0	143.886	17,7	-11,1	20,6
Ezkerraldea	96.643	13,0	114.744	13,7	131.319	14,6	111.519	13,7	-15,1	22,7
Bizkaiko kosta	31.827	4,3	32.690	3,9	36.223	4,0	33.439	4,1	-7,7	3,2
Durangaldea	43.932	5,9	48.106	5,7	50.782	5,6	48.011	5,9	-5,5	3,2
Donostialdea	166.679	22,4	186.593	22,3	199.910	22,2	180.384	22,1	-9,8	22,4
Tolosa-Goierrri	39.065	5,2	43.902	5,2	46.279	5,1	41.931	5,1	-9,4	5,0
Debagoiena	32.367	4,3	34.574	4,1	31.095	3,4	28.468	3,5	-8,4	3,0
Debarrena	19.437	2,6	22.104	2,6	21.728	2,4	19.224	2,4	-11,5	2,9

2. ENPLEGU-DINAMIKA NEGATIBOA 2012AN

2.1. Enplegu-dinamika gero eta handiagoa duen ekoizpen-sistema

2012an sendotu egin da aurreko urteetan EAEko lan-merkatuan ikusitako dinamika handiagorako joera. 1996an, enplegu-dinamika zuten establezimenduak % 16,5 ziren. 2000n, proportzio hori % 20,4 zen, eta 2004an % 21,5. 2008an, kopuruak antzekoak izan ziren (% 21,2). 2012. urtean beste gorakada handia egon zen, adierazlea % 24,3raino irtsi baitzen.

9. taula
Azken urtean enplegu-dinamika izan duten establezimenduak, jarduera-sektore eta -adarraren arabera.
2008-2012
(Establezimenduen guztizkoaren gaineko %a)

Jarduera-adarra eta -sektorea	Enplegu-dinamika duten establezimenduak	
	2008	2012
GUZTIRA	21,2	24,3
Jarduera-sektorea		
Industria	39,5	36,2
Eraikuntza	20,6	24,4
Zerbitzuak	19,4	23,0
Jarduera-adarra		
Energia-ind. eta antzekoak	36,1	35,7
Metalaren ind.	46,1	45,0
Manufaktura-ind.	33,0	28,2
Eraikuntza	20,6	24,4
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	20,4	25,7
Garraioak/Komunikazioak	18,4	17,7
Merkataritza-zerbitzuak	14,6	19,4
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	26,0	28,8
Beste zerbitzu batzuk	24,5	20,1

2.2. Eragin erlatibo askoz handiagoa izan dute laneko bajek

EAEko ekoizpen-sisteman enplegu-dinamika gero eta handiagorako gertatzen ari den joeraren alderdirik nabarmenena da joera horrekin batera enplegu-bajek neurrigabeko garrantzia hartu dutela. Bereziki gora egin du krisian edo doikuntza-fasean egonik soilik laneko bajak izan dituzten establezimenduen eragin negatiboa, altak (edo altak nahiz bajak) izan dituzten establezimenduen dinamikari dagokion saldo positiboaren aldean. Hala, 2012an, bajak soilik izan zituzten establezimenduetan izan diren bajak enpleguko altaren bat izan duten establezimenduetan sortutako enplegu garbiak baino % 264,3 gehiago dira. Kopuru hori argi eta garbi 2004ko % 50,7aren eta 2008ko % 57,4aren gainetik dago. Iragan mendeko 90eko hamarkadako enplegu-krisiaren amaiera hurbil zegoeneko 1996. urteko % 64,1a ere gainditzen du.

2012an izandako dinamikak ondorio garrantzitsu bat dauka: 1996 eta 2008 bitartean, bajen kopurua, lanpostu berriak sortu zituzten establezimenduetan izandako alta garbiena baino txikiagoa izan zen. 2012an, aldiz, enplegu-dinamika positiboren bat izan zuten establezimenduetan izandako enplegu-alta garbi bakoitzeko, 2,64 enplegu galdu ziren baja gisa, beheranzko enplegu-joera izan zuten zentroetan.

2012an, bereziki nabarmena izan da bajek alten gainean izandako eragin erlatiboa, honako kasu hauetan:

- * Metalaren industrian eta eraikuntzan. Arlo horietan bajak 14,4 eta 30,7 aldiz handiagoak izan dira altak baino. Kopurua oraindik oso handia da (7,2 eta 8,4) garraioen eta komunikazioen eta merkataritza-zerbitzuen adarretan. Txikiagoa izan arren, adierazlea 2,2koa da manufakturen industrian.
- * Sektore pribatuan, 4,4 baja izan dira sortutako alta garbi bakoitzeko.
- * 3 enplegu baino gutxiagoko establezimenduetan, ia-ia 22 baja izan dira, dinamika positiboa izan duten zentroetan sortutako alta bakoitzeko. Paradoxikoa izan arren, bajek alten gainean eragin nabarmena izan dute beste enpresa-eremu batean, 500 eta 999 langile dituzten zentroetan, alegia. Kasu horretan, alta garbi bakoitzeko 3,2 baja izan dira 2012an.

Establezimenduak 100 lanpostutik beherako edo gorako enplegu-bolumenaren arabera bereiztean, egiaztatu da 100 langile baino gutxiagoko establezimenduetan alta garbi bakoitza 2,8 bajak konpentsatzen dutela (horrelako zentroetan, 2008an jada bajek alta garbien % 88,4 konpentsatzen zituzten). 100 langile baino gehiagoko zentroetan, ordea, alta garbien kopurua bajena baino handiagoa da. 2008an, bajek alta garbien % 5,1 konpentsatzen zituzten. 2012an, ordea, % 62,1.

- * Lurralde ikuspegitik, Donostialdea da 2012an enplegu-bajen eragin erlatiboa gehien jasan duen eskualdea (alta garbien % 625,6 dira), eta horren atzetik Gasteiz doa (% 255,8). Adierazlea % 150 eta % 200 bitartekoa da Durangaldean, Eskuinaldean, Bilbon eta Ezkerraldean.

Aldiz, 2012an aldeko saldo garbia egon da laneko alten eta bajen artean, Aiaran, Bizkaiko Kostan edo Debagoienan, 100 eta 499 langile bitarteko zentroetan, gizarte-ekonomian edo sektore publikoan (azken kasu horretan, enpleguak hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan oraindik daukan hedatze-dinamikaren emaitza, neurri handi batean).

2011ko azaroaren eta 2012ko urriaren arteko alten eta bajen dinamikaren saldo garbiak, EAEko ekoizpen-sisteman 26.446 enpleguko galera eman du, gaur egungo enplegu-bolumenarekin alderatuta jaitsiera erlatiboa % 3,2koa izan dela. Kualifikatutako obrako langileak dira batez besteko maila hori gainditu duten bakarrak, enpleguaren gaineko % 7,1eko saldo negatiboarekin. Kopuru hori askoz handiagoa da kualifikaziorik gabeko langileen % 2,4a, erdi-mailako arduradunen % 1,4a eta zuzendaritzako eta administrazioko langileen % 1etik beherako kopuruak baino. Azaldutako kategoria horietan detektatu den saldo negatiboaren % 87,1 kualifikatutako langileek betetako lanpostuekin lotzen da (*Kualifikatutako beste langile batzuk*).

Bilakaera horren alderik onenean, alten eta bajen arteko saldo garbia positiboa da teknikarien kasuan, azken urtean % 0,5eko gorakada egon baita enplegu-bolumenean.

10. taula
**Bajen ehunekoa (bajak soilik izan dituzten establezimenduetan),
alta garbiekin alderatuta (altak eta bajak izan dituzten establezimenduetan), aldagai batzuen eta besteen
arabera. 2008-2012**

	Alta garbien gaineko bajen %a	
	2008	2012
GUZTIRA	57,4	264,3
Lurralde Historikoa		
Araba	108,1	224,9
Bizkaia	40,1	160,5
Gipuzkoa	71,5	455,0
Eskualdea		
Gasteiz	126,5	255,8
Aiaraldea	40,2	75,1
Eskuinaldea	33,1	195,1
Bilbo	40,3	189,2
Ezkerraldea	23,7	164,5
Bizkaiko kosta	152,3	54,5
Durangaldea	46,4	151,8
Donostialdea	74,7	625,6
Tolosa-Goierni	87,5	135,6
Debagoiena	61,9	73,2
Debarrena	34,0	106,8
Tamaina		
3 baino gutxiago	-1.005,2	2.194,6
3 eta 9 bitartean	69,1	129,0
10 eta 49 bitartean	38,4	103,2
50 eta 99 bitartean	14,7	131,3
100 eta 249 bitartean	16,2	82,2
250 eta 499 bitartean	2,8	17,4
500 eta 999 bitartean	0,2	322,2
1.000tik gora	0,7	0,0
< 100	88,4	284,5
> 100	5,1	62,1
Establezimendu-mota		
Sektore publikoa	3,0	16,6
Gizarte-ekonomia	32,5	19,9
Sektore pribatuko gainerakoak	74,0	444,8
Jarduera-sektorea		
Industria	80,0	1.247,8
Eraikuntza	138,0	3.073,2
Zerbitzuak	46,9	195,4
Jarduera-adarra		
Energia-ind. eta antzekoak	55,8	-153,2
Metalaren ind.	52,6	1.441,0
Manufaktura-ind.	183,3	224,1
Eraikuntza	138,0	3.073,2
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	65,2	81,0
Garraioak/Komunikazioak	47,3	723,7
Merkataritza-zerbitzuak	42,7	840,8
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	10,2	24,0
Beste zerbitzu batzuk	1.523,7	116,6

11. taula

Enplegu-dinamika 2011ko azarotik 2012ko urrira bitarteko aldiaren lanbide-kategoriaren arabera
(Alten eta baje kopurua eta alten eta baje arteko saldoa. Enpleguaren gainerako saldoaren %a)

Lanbide-kategoria	Altak	Bajak	Saldoa	Enpleguaren
				gainerako saldoaren %a
GUZTIRA	245.846	272.292	-26.446	-3,2
Zuzendaritzako langileak	1.329	1.492	-164	-0,2
Teknikariak	38.699	37.734	965	0,5
Erdi-mailako arduradunak	1.694	2.209	-515	-1,4
Administrazioko langileak	14.917	15.618	-700	-0,9
Bestelako kualifikatuak	114.140	138.009	-23.869	-7,1
Prestakuntzarik gabeko langileak	75.067	77.230	-2.163	-2,4

2.3. Eta aldi baterako kontratazioarako joera handiagoa

Era berean, enplegu-dinamikari buruzko datuek erakusten dute kontratazioak aldi baterako modalitateetara joko duela. Joera-aldaketa hori alderdi esanguratsu hauetan ikus daiteke:

- * Alde batetik ikusi da aldi baterako enpleguak iraupen mugagabeko enplegu bihurtzeko prozesuak eragin txikiagoa izan duela. Izan ere, 2011ko azarotik 2012ko urrira bitarteko aldiaren iraupen mugagabeko enplegu bihurtutako aldi baterako enpleguen pisu erlatiboak (% 2,4) behera egin du 2008ko urtarriletik urrira bitarteko aldiarekin alderatuta (% 3,4).
- * Beste alde batetik ikusi da behera egin duela iraupen mugagabeko kontratazioak establezimenduetako alten dinamikan egiten duen ehunekoak. Ehuneko horrek behera egin du, 2008ko urtarriletik urrira bitarteko aldiko % 11,9tik 2011ko azarotik 2012ko urrira bitarteko % 8,7ra arte. Jaitsierarik deigarriena erdi-mailako arduradunen taldeari (% 46tik % 39,3ra), administrazioko langileei (% 18,7tik % 13,8ra) eta gainerako kualifikaziodun langileei (% 15,3tik % 7,1era) dagokie.

12. taula

Aldiko alten ehuneko-banaketa kontratu-harremanaren arabera eta lanbide-kategoria bakoitzeko

Aldiak: 2008ko urtarriletik urrira eta 2011ko azarotik 2012ko urrira
(% horizontalak)

Lanbide-kategoria	2008ko urtarrila/ 2008ko urria		2011ko azaroa/ 2012ko urria	
	Mugagabea	Aldi	Mugagabea	Aldi
	GUZTIRA	11,9	88,1	8,7
Zuzendaritzako langileak	69,4	30,6	68,8	31,2
Teknikariak	13,8	86,2	14,1	85,9
Erdi-mailako arduradunak	46,0	54,0	39,3	60,7
Administrazioko langileak	18,7	81,3	13,8	86,2
Bestelako kualifikatuak	15,3	84,7	7,1	92,9
Prestakuntzarik gabeko langileak	5,0	95,0	5,5	94,5

3 EGITURAZKO JOERA ESANGURATSU BATZUK

3.1 Gora egin du lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzi erlatiboak

Enpleguaren modalitate espezifiko batzuk kontuan hartzean ikusi da joera historiko batzuk sendotu direla EAEko ekoizpen-sistemaren egiturazko taxueran. Joera horietako bat lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzi erlatibo gero eta handiagoaren jarraitutasuna da. 2000. urtean enplegu guztien % 8,2 izan ziren; 2004an, lanaldi partzialaren garrantzia % 10,5era igo zen, 2008an % 12,1era, eta 2012an ere goia jo zuen, % 14,3.

Enplegu-modalitate horren goranzko joera deigarriagoa da hirugarren sektorean; kasu horretan, 2008ko % 15,9tik 2012ko % 18,3ra igo da. Aipatu laurtekoan, prozesu hori bereziki merkataritza, ostalaritza eta konponketen adarrekin lotu da. Horietan, lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzia % 15,9tik % 20,3ra eta % 14,8tik % 17,7ra igo da (+4,4 eta +2,9 puntu, hurrenez hurren). 2012an, hala ere, beste zerbitzuen adarra da enplegu-modalitate hori gehien agertu den eremua. Adierazle hori % 23,2 izan da, 2008ko % 21,9a baino 1,3 puntu handiagoa. % 19arekin, lanaldi partzialeko lanaren garrantzia nabarmena da hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan ere, kasu horretan 2008koen antzeko kopuruak badira ere (% 19,3).

Lanaldi partzialeko enpleguaren proportzioa askoz txikiagoa da ekonomiaren gainerako adarretan, 2012an % 4,7 eta % 7,3 artean egon zen industriako metalaren eta manufakturen adarretan, eraikuntzan eta garraioen eta komunikazioen adarretan. Lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzirik handiena duten adarretako mailetatik urrun egon arren, energia-industriaren adierazleak aldiko gorakadarik handienetako bat dauka 2008ko % 5,2tik 2012ko % 9,4ra.

13. taula
Lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzia, jarduera-sektore eta -adarraren arabera. 2008-2012
(Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Jarduera-adarra eta -sektorea	2008	2012
GUZTIRA	12,1	14,3
Jarduera-sektorea		
Industria	5,3	5,7
Eraikuntza	3,4	4,9
Zerbitzuak	15,9	18,3
Jarduera-adarra		
Energia-ind. eta antzekoak	5,2	9,4
Metalaren ind.	4,6	4,7
Manufaktura-ind.	7,2	6,9
Eraikuntza	3,4	4,9
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	15,9	20,3
Garraioak/Komunikazioak	6,0	7,3
Merkataritza-zerbitzuak	14,8	17,7
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	19,3	19,0
Beste zerbitzu batzuk	21,9	23,2

Lanaldi-laburtzearen modalitateak metalaren industrian

Lanaldia laburtzen laguntzen duten eragileen azterketari buruzko hurbilketan, nabarmendu beharreko alderdi bat gaur egun Enplegu Erregulazioko Espedientei lotzen zaizkien lanaldi-laburtzearen modalitateek daukaten garrantzia da. EAEn dauden enpleguen % 4,1 2012an lan-egoera horri lotu zaizkio. Eraginik handiena jasan duen sektorea industria izan da. 2012an, Enplegu Erregulazioko Espedienteen zioz enplegu-murrizketaren egoeran enpleguen % 10,2 egon dira. Proportzio hori gehienez % 12,8koa izan da metalaren industrian, manufakturen industriaren % 6a eta hortik hurbil edo beherago dauden ekonomiaren gainerako adarren % 4a baino askoz handiagoa.

14. taula
Lanaldia laburtzeko Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpean dauden enpleguen garrantzia, jarduera-sektore eta -adarraren arabera. 2012
(Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Jarduera-adarra eta -sektorea	2012
GUZTIRA	4,1
Jarduera-sektorea	
Industria	10,2
Eraikuntza	4,2
Zerbitzuak	2,1
Jarduera-adarra	
Energia-ind. eta antzekoak	3,7
Metalaren ind.	12,8
Manufaktura-ind.	6,0
Eraikuntza	4,2
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	2,3
Garraioak/Komunikazioak	3,2
Merkataritza-zerbitzuak	3,1
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	0,7
Beste zerbitzu batzuk	1,3

3.2 Emakumeek gero eta partaidetza handiagoa dute enpleguan

2008 eta 2012 bitartean, bestalde, sendotu egin da emakumeen enpleguak EAEko enplegu produktiboan duen garrantziaren gorakada. 1996an % 32,8 izanik, emakumeen enpleguen proportzioak gora egin du modu jarraituan, eta 2012an % 42,4 izan da.

Azaldu den gorakada hori ekonomiaren hainbat sektoretan ikusi da, baina argiago ikusi da zerbitzuen sektorean. Sektore horretan sendotu da 2012an aldaketa kualitatibo hori. Aldaketa horren ondorioz, hain zuzen ere, 2004tik emakumeen garrantzia nagusi da sektoreko enpleguan. Zerbitzuetan, emakumeen enpleguaren proportzioa % 53,3 izan da 2012an, 1996ko % 45,4a baino ia 8 puntu handiagoa. Gainerako sektoreetan, 1996tik ikusi diren gorakadak gorabehera, ez dira gairitu emakumeen enplegua gutxienezkoa den arlo batzuk (% 12 eraikuntzan eta % 20,5 industrian).

15. taula
Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa, jarduera-sektorearen arabera. 1996-2012
 (Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Sektorea	1996	2000	2004	2008	2012
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4
Industria	14,9	17,3	18,6	19,9	20,5
Eraikuntza	6,0	7,7	8,4	11,6	12,0
Zerbitzuak	45,4	48,3	51,3	52,9	53,3

2008 eta 2012 bitartean, emakumeen enpleguaren pisu erlatiboaren hedapen joera bai lanbide-kategoria kualifikatuetan (teknikariak edo erdi-mailako arduradunak) bai kualifikaziorik gabeko langileen populazioan ikusten da. Teknikarien kasuan, 2012an sendotu egin da enpleguaren sexuen araberrako banaketaren oreka, 2008an sumatzen hasi zena.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da 1996tik 2008ra etengabe jaitsi ondoren, azken urte horren eta 2012aren artean emakumeek zuzendaritza postuetan daukaten pisua handitzen hasi dela (% 28,8tik % 32,6ra). Hala ere, lanbide-kategoria horretan emakumeen proportzioa oraindik ere % 35 baino gutxiagokoa izan da 2012an, erdi-mailako kargudunen artean eta *Bestelako langile kualifikatuak* taldean ere gertatzen den bezala. Hain zuzen ere, talde horretan 2008 eta 2012 bitartean, egonkortu egin da emakumeek enpleguan duten pisua. Are gehiago, aipatutako laurtekoan, emakumeen garrantzia jaitsi ere egin da administrazioko langileen artean, talde hori oso feminizatuta dagoen arren. Izan ere, emakumeek enplegu horren % 72,4 bete 2012an.

16. taula
Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa, lanbide-kategoriaren arabera. 1996-2012
 (Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Lanbide-kategoria	1996	2000	2004	2008	2012
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4
Zuzendaritzako langileak	31,0	30,6	30,2	28,8	32,6
Teknikariak	40,7	47,4	47,8	49,4	50,0
Erdi-mailako arduradunak	15,7	15,6	21,8	25,2	30,4
Administrazioko langileak	63,8	68,1	71,5	76,5	72,4
Bestelako kualifikatuak	24,0	26,4	30,8	33,2	33,4
Prestakuntzarik gabeko langileak	30,5	34,9	34,8	42,1	48,1

Dena dela, ñabardura batzuk daude, konbergentzia-prozesurako oztopo batzuk agerian jarri ahal dituztenak

Adieraz behar da, hala ere, ikusten den irudia gehienbat enplegu-banaketaren egiturazko eraginaren ondorioa dela. Hain zuzen ere, emakumeen enpleguaren azterketaren emaitzak, adarren arabera, ez dira hain onak. Gorabehera nabarmenak 2008 eta 2012 bitartean manufakturen industrian (+2,5 puntu) eta merkataritza, ostalaritza eta konponketen adarrean soilik gertatu dira (+1,2 puntu).

Gainera, 1996tik lehenengo aldiz, 2008 eta 2012 bitartean nabarmen egin du behera emakumeek sektore publikoko enpleguan duten pisua, baita energia-industria, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak bezalako adarretan eta beste zerbitzu batzuetan ere. Hala eta guztiz ere, energia-industria alde batera utzita, arlo horietan enplegu gehiena emakumeena da.

17. taula
Emakumezkoen enpleguaren pisu erlatiboa, jarduera-adarraren arabera. 1996-2012
(Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Jarduera-adarra	1996	2000	2004	2008	2012
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4
Energia-ind. eta antzekoak	11,8	13,3	17,8	19,2	18,5
Metalaren ind.	12,6	14,5	15,7	17,5	17,5
Manufaktura-ind.	21,1	25,3	25,4	26,6	29,1
Eraikuntza	6,0	7,7	8,4	11,6	12,0
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	39,4	45,0	50,8	50,4	51,6
Garraioak/Komunikazioak	28,0	15,8	20,7	24,2	22,4
Merkataritza-zerbitzuak	37,8	45,2	45,2	49,2	49,2
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerb.	66,2	68,1	69,7	70,4	69,6
Beste zerbitzu batzuk	51,8	52,7	59,1	61,4	60,9

18. taula
Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa establezimendu motaren arabera. 1996-2012
(Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Establezimendu-mota	1996	2000	2004	2008	2012
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4
Sektore publikoa	62,4	65,5	67,8	67,6	66,0
Gizarte-ekonomia	30,8	33,6	37,7	39,6	43,1
Sektore pribatuko gainerakoak	28,9	32,1	34,5	37,8	39,5

3.3 Gero eta biztanle gazte gutxiagok dute enplegua

Nabarmendu beharreko hirugarren alderdi bat da biztanleria gazteena ekoizpen-sistematik baztertuta geratzen ari dela gero eta azkarrago. Hala, 35 urtetik beherako biztanleriak enplegu guztietan duen presentziak behera egin zuen 2004 eta 2008 artean % 34,2tik % 30,4ra, eta 2012an ozta-ozta % 23,2 da.

Euskal gizartean iragan mendeko 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera jaiotza-kopuru absolutuan gertatu den beherakadaren ondorioz, adin horietako biztanleria osoaren bolumenaren beherakada jarraitua gertatu da. Beherakada hori eta gazteen enpleguaren beheranzko bilakaera, elkarren artean kontrajarrita daude.

19. taula
35 urtetik beherako pertsonen pisu erlatiboa, jarduera-sektore eta -adarren arabera. 2004-2012
 (Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Jarduera-adarra eta -sektorea	2004	2008	2012
GUZTIRA	34,2	30,4	23,2
Jarduera-sektorea			
Industria	35,1	30,1	22,0
Eraikuntza	33,7	28,0	18,9
Zerbitzuak	33,9	30,8	24,0
Jarduera-adarra			
Energia-ind. eta antzekoak	25,9	23,7	17,6
Metalaren ind.	37,3	31,9	23,3
Manufaktura-ind.	33,2	27,3	20,2
Eraikuntza	33,7	28,0	18,9
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	35,9	33,0	26,7
Garraioak/Komunikazioak	27,5	25,9	16,0
Merkataritza-zerbitzuak	39,9	34,0	25,1
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	24,5	23,9	20,5
Beste zerbitzu batzuk	39,5	35,0	29,7

Biztanlerik gazteenek enpleguan duten pisu erlatiboaren beherakada lotuta dago 5 urte baino luzarago betetako lanpostuen proportzioaren gorakadarekin. Gorakada hori, Euskadin 2000. urtetik aurrera hasi zen detektatzen. 2000 eta 2008 bitartean % 57,7tik % 62,6ra arte igo ondoren, egoera horretan dauden pertsonen betetako lanpostuen proportzioak gora egin du are modu biziagoan 2008-2012 aldian, eta azken urte horretan % 68,9ra iritsi da. Adierazle horren gorakada biziagoa izan da industrian eta eraikuntzan 2008-2012 aldian, baina hirugarren sektorean ere gertatu da, bereziki merkataritza-adarretan.

20. taula
5 urte edo gehiagoko antzinatasuna duten enpleguek enpresan duten pisua, jarduera-sektorearen eta -adarraren arabera 2008-2012
 (Enplegu kopuru osotik, %-tan)

Jarduera-adarra eta -sektorea	2008	2012
GUZTIRA	62,6	68,9
Jarduera-sektorea		
Industria	66,6	74,1
Eraikuntza	60,1	74,4
Zerbitzuak	61,5	66,5
Jarduera-adarra		
Energia-ind. eta antzekoak	73,1	79,1
Metalaren ind.	65,0	72,6
Manufaktura-ind.	68,7	76,2
Eraikuntza	60,1	74,4
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	61,5	66,1
Garraioak/Komunikazioak	68,9	72,8
Merkataritza-zerbitzuak	58,9	66,2
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	62,3	64,7
Beste zerbitzu batzuk	59,2	67,5

4 ETORKIZUNeko IGURIPEN ETA ERAGILEAK

4.1 Sistemak lanpostu berriak sortzen duen gaitasunaren beheranzko joerak bere horretan dirau

Enpleguak Euskadin dituen etorkizuneko iguripenak aztertzean, egiaztatzen da euskal ekoizpen-sistemako 5 enplegutik gorako establezimenduetan 2012. urtean 2000. urteaz geroztik lanpostu berriak sortzeko ikusi den gaitasunaren beherakadaren joerak bere horretan dirauela eta, are gehiago, joera areagotu egin dela. Lantokiak plantilla idealeko modalitatera hurbiltzeko prozesuan, adibidez, EAEko establezimenduek planteatzen duten lanpostu kopuruaren gorakadako ikuspegia murriztu egin da, 2000ko 18.862 enpleguetatik 2004ko 16.551tara. 2008an 13.008 izan ziren, eta 2012an 6.831 besterik ez. Beheranzko joera hori nahiz joeraren intentsitatea, ekonomiaren ekoizpen-sektore batzuen eta besteen ezaugarriak izan dira 2008 eta 2012 bitartean.

4.1.1. Dena dela, badirudi plantillen egitura ideala doitzeko prozesua amaitzear dagoela industria-sektorean

Adierazle batzuek, dena dela, agerian jarri dute enpleguaren beherakadaren ondorioz 2008az geroztik taxutu den doikuntza-egoera eta 2012an kontratazioak izan duen dinamika negatiboa amaitzear daudela.

Alde horretatik, EAEn 5 enplegu baino gehiago dauzkaten ekoizpen-zentroetako plantilla idealera hurbiltzeko iguripenean, 2012an hautsi egin zen EAEko sistema ekonomikoa 2000-2008 aldian lanpostu-bolumenaren beherakadaren arrisku gero eta handiagoa. Hala, euskal ekoizpen-zentroek plantilla idealaren eredura hurbiltzeko beharrezkotzat jotzen duten enplegu-murrizketa 2000ko 4.600 enpleguetatik 2004ko 7.395etara eta 2008ko 15.067etara igo zen, baina 2012an beharrezkoak diren doikuntzak 6.782 enpleguakoak dira soil-soilik. 2004an eta 2008an ikusi zenari dagokionez, beraz, azken kopuru horrek presio txikiagoa dakar plantillak doitzeko prozesuan, galdu ahal diren lanpostuei dagokienez. Hala da kopuru absolutuetan, baina adierazle erlatiboetan ere bai. Egon daitezkeen galera horiek 2012an zegoen enpleguaren % 0,8 dira, 2008koaren % 1,7 eta 2004koaren % 1.

Aldaketarik handiena industriari eragiten diona da. Sektorre horretan, 2008an plantilletan 10.672 lanpostu murriztu behar ziren. 2012an, aldiz 2.970 enplegu soilik. Sektorre horretan iguripen onak dauzkaten establezimenduetan sortu beharreko lanpostuen bolumenak ere behera egin du (4.317tik 2.418ra), baina bilakaera horrek industriaren enpleguaren doikuntza-prozesuaren amaiera aurreratzen du, dirudienez. Hain zuzen ere, 2008an industriako 6.354 lanpostu garbi galdu ziren, baina 2012an 552 enplegu izan ziren⁴.

⁴ Hala ere, adierazi behar da aldeko egiturazko ikuspegi horrek 2013an koiunturazko dinamika negatiboa izaten jarraituko duela. Eustaten industria-ekoizpenari buruzko datuek %6,4ko urte arteko jaitsiera erakusten dute. Abuztuko datuak, gainera, hautsi egiten du 2013ko uztailean arte egon ziren ekoizpen-galeren beheranzko joera (-%1,9 hilabete hartan). Hala ere, BJAren 2013ko datuek erakusten dutenez, industriako enplegu-kopurua egonkortu egin da 2012ko azken hiruhilekoko datuen aldean.

21. taula
Enplegu-bolumenaren aldaketa, plantilla idealaren egoera
lortzeko,
jarduera-sektorearen arabera. 2008-2012
 5 enplegu baino gehiagoko establezimenduak
 (Datu absolutuak)

Sektorea	Plantilla ideala-2008			Plantilla ideala-2012		
	Igoera	Murrizketa	Saldoa	Igoera	Murrizketa	Saldoa
GUZTIRA	13.008	15.067	-2.059	6.831	6.782	49
Industria	4.317	10.672	-6.354	2.418	2.970	-552
Eraikuntza	1.826	829	997	977	621	357
Zerbitzuak	6.865	3.566	3.299	3.437	3.192	245

4.2 Finantzaketa-arazoaren eragin txarra

4.2.1. Hobera egin du industriaren finantza-egoerak, eraikuntzan eta zerbitzuan gertatu denaren aldean

Industrian egoerak hobera egin du, ekoizpen-zentroen egoera oneratu egin delako. Hala, finantzaketa-arazo handi samarrak edo larriak dituzten industria-establezimenduetako enpleguen proportzioak 2008 eta 2012 bitartean behera egin du % 34,2tik % 25era (arazo larriek dagokienez, % 13,2tik % 8,7ra).

Aldiz, txarrera egin du hirugarren sektorearen egoerak. Dena dela, finantzaketa-arazo handi samarrak edo larriak dituzten enpleguen proportzioan igoera txikia besterik ez da egon (% 13,9tik % 14,5era; % 4,6tik % 5,8ra arazo larriek dagokienez).

Beharakada handiagoa izan da eraikuntzan. Sektore horretan, finantzaketa-arazo handi samarrak edo larriak dituzten zentroetako enpleguen proportzioak gora egin du 2008ko % 25,5etik 2012ko % 28,4ra (% 11tik % 13,7ra, arazo larriek dagokienez). Gainera, beharakada area handiagoa izan da 5 enplegu baino gehiago dituzten zentroetan (arazo handi samar edo larrien % 31,6tik % 35,4ra; arazo larrien % 12,2tik % 17,5era).

22.a taula
Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduak, jarduera-sektorearen eta finantzaketa-arazoaren
larritasunaren arabera. 2008-2012
 (Establezimenduetako enpleguaren %aren arabera)

Sektorea	handi samar edo larrien %		larrien %	
	2008	2012	2008	2012
GUZTIRA	20,1	18,0	7,4	7,1
Industria	34,2	25,0	13,2	8,7
Eraikuntza	25,5	28,4	11,0	13,7
Zerbitzuak	13,9	14,5	4,6	5,8

22.b taula

Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduak, 5 enplegu baino gehiagokoak, jarduera-sektorearen eta finantzaketa-arazoaren larritasunaren arabera. 2008-2012
(Establezimenduetako enpleguaren %aren arabera)

Sektorea	handi samar edo larrien %		larrien %	
	2008	2012	2008	2012
GUZTIRA	23,6	19,4	8,3	7,2
Industria	35,9	25,6	13,5	8,6
Eraikuntza	31,6	35,4	12,2	17,5
Zerbitzuak	15,8	14,9	4,9	5,5

Hala eta guztiz ere, zerbitzuen sektorea da oraindik ere finantzaketa lortzeko eragozpen gutxien dituen

Konparazio aldetik industriak 2008 eta 2012 bitartean bilakaera hobea izan duen arren, zerbitzuen sektorea da finantzaketa-arazo handi samarren edo larrien ondorioak gutxien jasan dituen (2012an sektoreko establezimendu guztien artean enpleguen % 14,5 egon da eraginpean; industrian, aldiz, % 25, eta eraikuntzan % 28,4; arazo larriei dagokienez % 5,8, % 8,7ren eta % 13,7ren aldean).

Egoera hori, hirugarren sektoreak bankuen kreditua eskuratzeko dituen aukera hobekin lotzen da. Finantzaketa-arazo larriak dauzkaten establezimenduei dagokien enplegua erreferentzia gisa hartuta ikusten da, orokorrean, enplegu horren % 48,3 banku-sistemari kredituak eskatzen dizkieten zentroekin lotzen dela. % 66arekin, proportziorik handiena industriari dagokio, zerbitzuen sektorearen % 43,5etik eta eraikuntzaren % 34,5etik askoz gorago.

Hala ere, industria da onartutako eskarien proportziorik txikiena duen sektorea, inplikaturako establezimenduetan dagoen enpleguari dagokionez, egin diren eskariaren % 29,7 besterik ez. Hori, argi eta garbi, proportzio txikiagoa da zerbitzuen sektorean (% 48,2) eta eraikuntzaren sektorean (% 38,6) baino.

Kredituak gehiago jasotzen dituzenez, eta eskari aldetik industriaren atzetik egon arren, zerbitzuen sektoreko zentroak 2012an buru izan dira bankuen kredituak eskuratzeari dagokionez. Sektore horretan, eskuratzeko-maila hori finantzaketa-arazo larriak dituzten establezimenduetako enpleguaren % 19,1aren baliokidea izan da; proportzio hori % 16,8koa izan da industrian eta % 12,6koa eraikuntzan.

Aldiz, industrian bankuen kredituen eskariak ukatu zaizkien establezimenduak finantzaketa-arazo larriak izan dituzten industria-zentroetako enplegu osoaren % 39,8 izan dira; kopuru hori askoz handiagoa da gainerako sektoreen % 20a eta % 21a baino.

23. taula

Finantzaketa-arazo larriak dituzten establezimenduak, jarduera-sektorearen eta banku-maileguak eskuratzeko aukeren arabera. 2012

Datuak, establezimenduetako enpleguaren arabera
(horizontalen % , eskarien % eta egindako eskariekin alderatuta onartu diren eskarien %)

Sektorea	2012							Onartutako eskarien %
	Emana	Ukatua	Erantzuna jaso zain	Eskatuta baina informaziorik gabe	Ez da eskatu	Ed/Ee	Eskarien %	
GUZTIRA	17,4	25,9	3,2	1,9	47,0	4,6	48,3	40,3
Industria	16,8	39,8	6,3	3,0	31,0	3,0	66,0	29,7
Eraikuntza	12,6	20,1	1,8	0,0	65,0	0,5	34,5	38,6
Zerbitzuak	19,1	20,6	2,0	1,8	49,9	6,6	43,5	48,2

Zerbitzuen sektoreak finantza-aldeetik daukan jarrera hobea argiago ikus daiteke establezimenduen finantza-gastuen garrantzia kontuan hartzen badugu gaur egungo negozio-kopuruarekin alderatuta. Kasu horretan, egiztatu da orokorrean enpleguaren % 12,4 finantza-gastuek gaur egungo negozio-kopuruaren % 15 gutxienez egiten duten zentroekin edo finantzaketa-arazo larriak edo handi samarrak dauzkaten zentroekin lotuta dagoela (finantza-egoera larri samarra edo larria). Proportzioa % 5,5ekoa da hurbilketa negozio-kopuruaren % 25eko edo gehiagoko finantzaketa-gastuak dituzten edo finantzaketa-arazo larriak dituzten zentroetara (finantza-egoera larria) mugatzen badugu.

Finantza-arazorik gutxienak zerbitzuen sektoreak dauka. Finantza-egoera larri samarra edo larria duten zentroei lotutako enplegua % 10,7an dago eta egoera larria duten zentroei lotutakoa % 5ean. Alderdiri ahulenean, eraikuntza nabarmentzen da, bere adierazleak hurrenez hurren % 16,6 eta % 8,2 direlako. Tarteko posizioan, industriako enpleguaren % 15,9 finantza-egoera larri samarra edo larria duten establezimenduekin lotzen da, eta % 6,1 egoera larria dutenekin.

24. taula

Establezimenduak, jarduera-sektorearen eta finantza-gastuek gaur egungo negozio-zifrarekin alderatuta duten pisuaren arabera 2012

Datuak, establezimenduetako enpleguaren arabera
(% horizontalak)

Sektorea	2012					ED/EE, arazo larriak	ED/EE, arazo handi samarrak	ED/EE, arazo arinak
	<% 5	% 5- % 14	% 15- % 24	% 25- % 49	> % 50			
GUZTIRA	52,8	9,6	2,9	2,1	1,5	1,9	3,9	25,3
Industria	44,0	15,0	2,7	2,2	1,2	2,7	7,1	25,1
Eraikuntza	56,6	9,9	2,7	1,8	2,9	3,5	5,7	16,9
Zerbitzuak	55,2	7,7	3,0	2,1	1,4	1,5	2,7	26,3

Baina hirugarren sektorean, besteekin konparatuta, gehiago jasaten dira kaudimengabezia arazoak eta ordaintzen atzerapenak

Kontuan hartuta 5 enplegu baino gehiago dituzten zentroetako enplegua, ikusten da finantza-arazo larrien jatorri nagusia bankuen finantzaketa eskuratzeko zailtasuna dela. Hala ere, horren eraginpean dauden enpleguen % 82,9, zailtasun hori industrian aipatzen duten zentroekin lotzen da. Proporzio hori % 64,9ka da eraikuntzan, eta ehunekoa % 47,5 besterik ez da zerbitzuetan.

Diferentzia hori honela azaltzen da: bezero partikularren ez ordaintzei eta/edo Administrazio Publikoen ordaintzen atzerapenei lotutako arazoek eragin diferentziala daukate zerbitzuen sektorean. Sektore horretan, eragile horiengatik gertatzen dira finantzaketa-egoera larrien % 31,1; proporzio hori % 24,1ekoa da eraikuntzan eta ia-ia % 7,9koa industrian. Eraikuntzan, aipatu diren arazo horiek batez ere bezeroen kaudimengabeziarekin lotzen dira (kasuen % 22,1). Zerbitzuetan, berriz, garrantzirik handiena Administrazioaren ordaintzen atzerapenak du (kasuen % 19,8, beste bezero batzuen kaudimengabeziarekin lotutako kasuen % 11,4ren aldean).

25. taula

Finantzaketa-arazo larriak dituzten establezimenduak, 5 enplegu baino gehiagokoak, jarduera-sektorearen eta arazo jatorri nagusiaren arabera 2012 (% horizontalak, establezimenduetako enpleguaren arabera)

2012					
Sektorea	Kanpoko finantzaketa eskuratzea (bankuak)	Funts propioen eskasia	Ez-ordaintzeak	Arazoak erakunde publikoekin (ordaintzetak)	Zehaztu gabe edo besteren bat
GUZTIRA	62,9	13,3	11,5	10,3	2,0
Industria	82,9	8,4	7,0	0,9	0,7
Eraikuntza	64,9	11,0	22,1	2,0	0,0
Zerbitzuak	47,5	17,7	11,4	19,8	3,6

4.2.2. Finantzaketa-arazoek kontratazioa mugatzen dute, eta enplegu-galera handiak izateko arrisku-egoera iraunarazten dute

Multzoan hartuta, ikusitako joeren ondorioz, mantendu egingo dira enpleguaren bilakaerari buruzko aurreikuspen negatiboak. Finantza-arloko zailtasunek, alde batetik, kontratazio berrien iguripenak mugatzen dituzte. Egoera horrek 2012an eraikuntzaren sektorean enpleguaren % 23,8 egiten duten zentroei eragiten die, industriako enpleguaren % 20,7ri eta hirugarren sektoreko enpleguaren % 12,9ri.

Hala ere, 2012an EAEko ekoizpen-zentroen ezaugarri izan den % 15,6ak beheranzko joera ageri du 2008ko % 17aren aldean. Beherakada, hala ere, industrian soilik gertatu da (2008ko % 26,1etik 2012ko % 20,7ra). Adierazlea % 12,9koa da hirugarren sektorean, eta handiagoa eraikuntzan. Sektore horretan, handitu egin da kontratazio berrietarako iguripenak jaitziko direla espero duten zentroetako enpleguen ehunekoa (2008ko % 21,4tik 2012ko % 23,8ra).

Beste alde batetik, handia da oraindik ere finantzaketa-arazoak dituzten zentroetan enplegua galtzeko arriskua. Zentro horiek EAEko enplegu osoaren % 9,7 izan ziren 2012an. % 8,5arekin, proportziorik txikiena hirugarren sektoreari dagokio, eta proportzio hori % 10,8ra arte igotzen da industrian, eta % 16,2ra arte eraikuntzan.

EAEko kopuru orokorra % 9,7 da, 2008ko % 11,3a baino 1,6 puntu gutxiago. Industriaren igeripenek nabarmen egin dute hobera, % 20,3tik % 10,8ra arteko jaitsiera egon baita 2008 eta 2012 bitartean. Zenbakiak erakusten dutenez, enplegua galtzeko arriskuaren intentsitateak bere horretan dirau eraikuntzan (2008an % 17 eta 2012an % 16,2), eta zerbitzuetan gorako joera txikia dago (2008an % 7,1 eta 2012an % 8,5).

26. taula
Finantzaketa-arazoaren eragina jarduera-sektorearen arabera. 2008-2012
Kontratazio berrietarako aukerak txikiagotzea
 Eraginpean dauden establezimenduetako enplegua
 (Datu absolutuak eta eraginpean dauden establezimenduetako enplegu guztien gaineko %)

Sektorea	Eraginpeko enpleguak - 2008		Eraginpeko enpleguak - 2012	
	Abs.	guztizkoaren %a	Abs.	guztizkoaren %a
GUZTIRA	153.422	17,0	127.245	15,6
Industria	57.877	26,1	38.531	20,7
Eraikuntza	19.080	21,4	16.050	23,8
Zerbitzuak	76.464	12,9	72.664	12,9

27. taula
Finantzaketa-arazoaren eragina jarduera-sektorearen arabera. 2008-2012
Enplegua galtzeko arriskua
 Eraginpean dauden establezimenduetako enplegua
 (Datu absolutuak eta eraginpean dauden establezimenduetako enplegu guztien gaineko %)

Sektorea	Eraginpeko enpleguak - 2008		Eraginpeko enpleguak - 2012	
	Abs.	guztizkoaren %a	Abs.	guztizkoaren %a
GUZTIRA	102.259	11,3	78.992	9,7
Industria	44.922	20,3	20.095	10,8
Eraikuntza	15.204	17,0	10.946	16,2
Zerbitzuak	42.133	7,1	47.951	8,5

Oharra: Establezimendu autonomoak aldi baterako itxeko arriskuan dauden kasuak txertatu dira

Finantza-egoerak lagundu egin du 2012an galtzeko arriskuan dauden enpleguen bolumena 40.532 enplegutuan mantentzen, 2008ko kopuruaren antzekoa (44.632 enplegu). Hala, 2012ko urrian EAEko enplegu-kopuruaren beherakada handiak izateko arrisku-egoerak iraun egin du.

Hain zuzen ere, 2008 eta 2012 bitartean gora egin du galtzeko arriskuan dagoen enpleguaren proportzioak, finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetako enplegu osoarekin alderatuta. Zentro horietan, galtzeko arriskuan dauden enpleguen proportzioak 2008ko % 43,6tik 2012ko % 51,3ra egin du gora.

Arriskuan dauden enpleguen enplegu osoan egiten duten proportzioa % 5 da, kasu horretan ia-ia hamarren bat 2008ko % 4,9tik gora. Kontuan hartuta proportzioak industrian behera egin du 2008ko % 7,1etik 2012ko % 4,3ra. Aldiz, laurtekoan gora egin du adierazleak eraikuntzan (% 9tik % 9,8) eta zerbitzuen sektorean (% 3,5etik % 4,6ra).

28. taula

Finantzaketa-arazoek eragina jarduera-sektorearen arabera. 2008-2012
Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetako enpleguen artean, arriskuan daudenak
 Datu absolutuak, % bertikalak eta establezimendu guztien eta establezimendu horien guztien gaineko %a)

Sektorea	Arriskuan dauden enpleguak	guztizkoaren %a	Eraginpeko	Establezimenduetako
			establezimenduetako enplegu-ehunekoa	guztizko enpleguaren ehunekoa
2012				
GUZTIRA	40.532	100	51,3	5,0
Industria	7.996	19,7	39,8	4,3
Eraikuntza	6.619	16,3	60,5	9,8
Zerbitzuak	25.918	63,9	54,1	4,6
2008				
GUZTIRA	44.632	100	43,6	4,9
Industria	15.693	35,2	34,9	7,1
Eraikuntza	8.032	18,0	52,8	9,0
Zerbitzuak	20.907	46,8	49,6	3,5

Oharra: Establezimendu autonomoak aldi baterako itxeko arriskuan dauden enpleguak txertatu dira

Enplegua galtzeko arriskurik handiena zerbitzuen sektoreak izan du 2012an

Hirugarren sektorearen egoerak txarrera egin du, eta horren ondorioz, 2012an egon daitezkeen enplegu-galera gehienak zerbitzuei dagozkie. Horretan lagundu egiten du zerbitzuen sektoreak EAEko enpleguaren egituran duen pisu handiak, baina industriak 2008 eta 2012 bitartean lortu duen posizio erlatibo hobekia ere bai. Hala, 2008an finantzaketa-arazoak zituzten establezimenduetan arriskuan zeuden enpleguen % 53,2 industriakoak eta eraikuntzakoak ziren. 2012an, aldiz, arriskuan dauden enplegu horien % 63,9 zerbitzuetan egon dira. Kontuan hartu diren enpleguen % 47,3 merkataritza, ostalaritza eta konponketen eta merkataritza-zerbitzuen adarrei dagozkie.

Datu horiek ikusita, gaur egungo egoeraren arrisku nagusia da enplegu-galeraren prozesua masiboki zerbitzuen sektoreara hedatzea. Hala ere, egoera horretan ñabardura bat dago: finantza-egoeraren larritasunik txikiena sektore horretan ageri da, eta hain zuzen ere sektore horretan dago kreditua eskuratzeko erraztasunik handiena⁵.

⁵ 2013ko BJA inkestaren datuak kontuan izanik, hain zuzen ere, ezin da esan zerbitzuen sektorean enpleguak beherakada nabarmenik izan duenik. Okupazioari buruzko kopuruek erakusten duten joera da sektore horretan 2013an enpleguak gora egingo duela.

29. taula

Finantzaketa-arazoaren eragina jarduera-sektorearen arabera. 2008-2012
Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetako enpleguen artean, arriskuan daudenak
 Datu absolutuak, % bertikalak eta establezimendu guztien eta establezimendu horien guztien gaineko %a)

	2008			2012		
	Absolutuak	% bertikalak	Guztizko enpleguaren	Absolutuak	% bertikalak	Guztizko enpleguaren
GUZTIRA	44.632	100	4,9	40.532	100	5,0
Energia-ind. eta antzekoak	1.227	2,7	7,1	883	2,2	4,9
Metalaren ind.	10.655	23,9	7,2	3.647	9,0	3,0
Manufaktura-ind.	3.812	8,5	6,9	3.465	8,5	7,4
Eraikuntza	8.032	18,0	9,0	6.619	16,3	9,8
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	11.558	25,9	5,6	13.389	33,0	7,2
Garraioak/Komunikazioak	1.974	4,4	3,7	3.419	8,4	6,7
Merkataritza-zerbitzuak	5.330	11,9	3,4	5.779	14,3	4,0
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerb.	431	1,0	0,3	1.233	3,0	0,9
Beste zerbitzu batzuk	1.614	3,6	3,4	2.098	5,2	5,0

Arriskurik handiena oraindik ere langile kualifikatuek dute

2012an, obrako langileek izan dute enplegua galtzeko arriskurik handiena. Hala, finantzaketa-arazoei lotutako enplegu-galerako arrisku-egoeren % 62,2 *Kualifikatutako beste langile batzuk* eta *Kualifikatu gabeko langileak* kategoriei dagokie. Proporzio hori ia-ia ez da murriztu da 2008an egon zen % 65,1aren aldean.

Obrako langileen artean, arriskurik handiena kualifikaziorik handiena duten langileek dute. Kualifikatutako langileen taldean arrisku-egoera guztien % 52,3 gertatzen dira, eta kopuru horrek gora ere egin du 2008ko % 50,2aren aldean.

Datuak lanbide-sektore eta -kategorien arabera aztertuta, finantzaketa-arazoengatik arriskuan dagoen enplegua banatzean talde nagusiak honako hauek dira:

- * Zerbitzuen sektorearen barruan *Kualifikatutako beste langile batzuk* kategoriako langileak: arriskuan dauden enplegu guztien % 32,6, 2008an talde horrek egin zuen % 19,6 baino gehiago.
- * Hirugarren sektorean kualifikaziorik handiena duten langileak (zuzendariak, teknikariak edo erdi-mailako arduradunak): arriskuan dauden enpleguen % 19,2, pisu erlatiboa handitzeko joera nabarmen samarrarekin, baina aurreko taldean ikusi zena baino gutxiago (% 16,3 2008an).
- * Industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak: 2012an arrisku-egoeran zeuden enpleguen % 19,7, kasu honetan argi eta garbi jaisten da 2008ko % 30,6aren aldean.

Multzoan hartuta, aipatu diren taldeetan finantzaketa-arazoengatik arriskuan dagoen enpleguaren % 71,5 biltzen da, 2008ko % 66,5a baino gehiago.

30. taula

Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetan arriskuan dauden enpleguak, jarduera-sektorearen eta lanbide-kategoriaren arabera. 2008-2012
(% horizontalak)

Sektorea	Zuzendariak, teknikariak eta erdi-mailako arduradunak	Administrazioko langileak	Kualifikatutako beste langile batzuk	Prestakuntzarik gabeko langileak	GUZTIRA
2012					
GUZTIRA	26,5	11,2	52,3	9,9	100
Industria	3,9	1,8	10,0	4,0	19,7
Eraikuntza	3,4	2,1	9,7	1,1	16,3
Zerbitzuak	19,2	7,3	32,6	4,9	63,9
2008					
GUZTIRA	24,0	10,8	50,2	14,9	100
Industria	4,3	2,4	19,9	8,5	35,2
Eraikuntza	3,4	1,9	10,7	2,1	18,0
Zerbitzuak	16,3	6,5	19,6	4,4	46,8

4.3. Lehiaren gorakadak eta eskariaren murrizketak baldintzatutako egoera

Enpleguaren dinamikan finantzaketa-arazoen garrantzia ukatu gabe, LMEren (Eskaria) datuek agerian jarri dute arazo horiek ez direla lehia areagotzearen eta eskaria murriztearen ondoriozko arazoak bezain erabakigarriak. EAEko zentroen jardueraren martxa mugatzen duten faktoreak mugatzerakoan, enpleguaren % 25,6 finantzaketa-arazoak aipatzen dituzten establezimenduekin lotzen da. Hori argi eta garbi kopuru txikiagoa da lehia areagotzearekin lotutako % 47,2a baino eta eskaria murriztearekin lotutako % 68,2a baino. Joera berberak ikusten dira 5 enplegu baino gehiago dituzten establezimenduetan: Finantzaketa-arazoak % 24,8tan aipatzen dira, lehia areagotzea % 49,4tan, eta eskaria murriztea % 64,8tan. Azken faktore horren eragina da 2008arekin alderatuta gora egin duen bakarra, urte hartan % 61,1ekoa izan baitzen.

Eskaria murriztea izan da jardueraren martxa mugatu duen faktore nagusia, finantza-arazoak dituzten establezimenduetan ere bai (arazo horrekin lotuta dagoen enpleguaren % 80,6 2012an, finantzaketa-arazoekin lotutako % 67,2aren aldean). Hala ere, finantzaketa-arazorik gabeko ekoizpen-zentroek lagundu dute gehienbat eskari-murrizketari dagokionez ikusi den goranzko joeran, 2008-2012 laurtekoan. Zentro horietan, faktore horri buruzko aipamenak 2008an enpleguaren % 51,4an egin ziren; 2012an, aldiz, % 58,5ean.

31.a taula

Establezimenduak, jarduera-sektorearen eta jardueraren martxa mugatzen duten faktoreen arabera. 2012
(Establezimenduetako enpleguaren guztizko kopuruen gaineko %a)

Sektorea	Lehia areagotzea	Eskaria murriztea	Finantzaketa-arazoak
GUZTIRA	47,2	68,2	25,6
Industria	56,7	77,8	31,0
Eraikuntza	56,8	85,2	37,6
Zerbitzuak	42,9	63,0	22,4

31.b taula

5 enplegu baino gehiagoko establezimenduak, jarduera-sektorearen eta jardueraren martxa mugatzen duten faktoreen arabera, finantzaketa-arazoak dauden ala ez kontuan hartuta 2008-2012
(Establezimenduetako enpleguaren guztizko kopuruen gaineko %)

GUZTIRA						
2012						
	Lehia areagotzea	Eskaria murriztea	Langile espezializatuen eskasia	Ekoizpen-ahalmen eskasa	Finantzaketa-arazoak	Beste arazo batzuk
Industria	58,5	78,1	9,7	4,5	30,9	2,1
Eraikuntza	62,2	88,5	8,1	2,9	43,1	2,3
Zerbitzuak	43,8	56,1	4,9	1,8	20,0	3,2
Guztira	49,4	64,8	6,6	2,7	24,8	2,8
2008						
Industria	54,8	81,7	26,2	6,1	37,8	3,8
Eraikuntza	52,4	75,1	34,6	6,8	41,2	2,9
Zerbitzuak	45,8	48,0	22,9	3,8	19,4	1,9
Guztira	49,2	61,1	24,9	4,8	27,2	2,6
FINANTZAKETA-ARAZOEKIN						
2012						
	Lehia areagotzea	Eskaria murriztea	Langile espezializatuen eskasia	Ekoizpen-ahalmen eskasa	Finantzaketa-arazoak	Beste arazo batzuk
Industria	62,9	83,8	11,5	7,1	69,6	4,0
Eraikuntza	65,1	95,8	5,0	6,0	75,8	3,8
Zerbitzuak	54,0	75,2	6,2	4,4	63,6	6,3
Guztira	58,6	80,6	8,1	5,6	67,2	5,2
2008						
Industria	56,6	90,5	24,7	6,7	70,6	4,0
Eraikuntza	55,1	81,1	31,0	8,5	74,5	5,0
Zerbitzuak	62,0	69,5	27,7	4,8	64,1	2,5
Guztira	58,8	80,3	26,8	6,0	68,3	3,4
FINANTZAKETA-ARAZORIK GABE						
2012						
	Lehia areagotzea	Eskaria murriztea	Langile espezializatuen eskasia	Ekoizpen-ahalmen eskasa	Finantzaketa-arazoak	Beste arazo batzuk
Industria	55,9	74,8	8,6	3,0	8,3	1,0
Eraikuntza	59,9	82,5	10,6	0,4	16,3	1,0
Zerbitzuak	40,8	50,5	4,6	1,0	7,4	2,3
Guztira	45,7	58,5	5,9	1,5	8,1	1,9
2008						
Industria	53,2	73,9	27,4	5,6	8,8	3,7
Eraikuntza	50,1	69,9	37,7	5,4	12,4	1,0
Zerbitzuak	40,5	41,0	21,3	3,5	4,8	1,8
Guztira	44,4	51,4	24,0	4,2	6,3	2,2

Salmentei buruzko iguripenek eskariaren joera negatiboa agerian jartzen dute. Hala, EAEn 5 enplegu baino gehiago dituzten establezimenduetan, enpleguaren % 39,2 2012an salmenten aurreikuspen negatiboak zituzten zentroei lotzen zitzairen. Proportzio horrek gora egiten du % 47,6ra arte industrian eta % 60,9ra arte eraikuntzan, argi eta garbi hirugarren sektorean erregistratutako % 33,1etik gora.

Hala eta guztiz ere, 2012an salmenten iguripen negatiboak eraikuntzaren sektorean soilik hartzen du gehiengoa (enpleguaren % 60,9, iguripen positiboa edo egonkorra duten zentroyen % 34,4ren aldean). Zerbitzuen sektorean, aldiz, nagusi da salmenten egonkortasuna edo iguripen positiboa (% 53,3, bilakaera negatiboaren % 33,1en aldean). Industrian, iguripena orekatuagoa da (bilakaera positibo edo egonkorren % 48,2, aurreikuspen negatiboaren % 47,6ren aldean).

32. taula
5 enplegu baino gehiago dituzten establezimenduak jarduera-sektorearen eta azken urtean salmentetan izandako bilakaeraren arabera. 2012
 (% horizontalak, establezimenduetako enpleguaren arabera)

Sektorea	Positiboa edo	Negatiboa edo	Egonkorra	Ed/Ee	Guztira
	Igoera	Jaitsiera			
GUZTIRA	14,8	39,2	35,7	10,2	100
Industria	19,2	47,6	29,1	4,2	100
Eraikuntza	7,8	60,9	26,6	4,7	100
Zerbitzuak	13,5	33,1	39,8	13,6	100

Nolanahi ere, salmenta handiagoak izateko iguripenik eza izan zen establezimenduek kontratatzerakoan izan zituzten eragozpenak azaltzen dituen faktorerik garrantzitsuena. Autonomoak ez diren establezimenduetako enpleguei dagokienez, eragile horren pisua % 52,2tik % 70,4ra egin du gora 2008 eta 2012 bitartean. Lan-merkatuan kualifikazio egokia duen lan-indarrik ez egotearekin edo lan-indar gutxi egotearekin lotutako arazoek, aldiz, behera egin dute % 39,3tik % 9,6ra. Soldata-kostuen eta soldatakoak ez diren kostuen eragina ere oso urrun dago salmentei dagokien eragiletik. Hurrenez hurren, horien kopuruak % 20,8 eta % 18,4 dira, eta beheranzko joera dute 2008ko % 24,3 eta % 19,8ekin alderatuta. Nabarmen beherago ageri da kaleratzearen zurruntasun edo kostua. Alderdi hori aipatzen duten establezimenduak autonomoak ez diren lanpostuen % 12,2 besterik ez dute egin 2012an (% 17,4 2008an).

33. taula
Langileak kontratatzeke dauden eragozpen nagusiak. 2008-2012
Autonomoak ez diren establezimenduak
 (Erantzunen %a, establezimenduen eta establezimenduetako enpleguaren arabera)

	Establezimenduen %a		Enpleguen %a	
	2008	2012	2008	2012
Salmenta handiagotarako aurreikuspenik eza	54,4	80,1	52,2	70,4
Haien egungo instalazioen produkzio-mugak	9,9	5,1	8,0	3,9
Merkatu-prezio baxuegiek eragindako marjina eskasak	7,1	8,8	13,6	12,0
Soldatakoak ez diren kostu handiak	16,7	17,7	19,8	18,4
Soldata-kostu altuak	17,3	16,2	24,3	20,8
Kaleratzearen zurruntasuna/kostua	4,8	5,2	17,4	12,2
Kualifikazio egokirik ez duen lan-indarrik ez egotea/gutxi egotea	25,2	6,1	39,3	9,6
Lanpostura egokitzeko kostua,/Prestakuntzaren kostua	7,8	6,1	12,2	9,4
Beste batzuk	5,1	9,3	11,7	11,6

Salmenten dinamikak, era berean, inbertsiorako iguripenetan egon daitekeen hobekuntza baldintzatzen du. Hala, 2008 eta 2012 bitartean gora egin du % 21,4tik 28,9ra etorkizunean inbertsiorik egingo ez duten establezimenduekin lotutako enpleguaren proportzioak. Proportzio horrek behera egin du industrian (% 22,3tik % 20ra 2008 eta 2012 bitartean). Aldiz, inbertsioei buruzko iguripenek txarrera egin dute modu deigarrian eraikuntzan (% 28,8tik % 37,8ra) eta, are modu argiagoan, zerbitzuen sektorean (% 19,8tik % 32,2ra).

34. taula
5 enplegu baino gehiagoko establezimenduak, jarduera-sektorearen eta inbertsioek izango duten bilakaerari buruzko iguripenen arabera. 2008-2012
 (% horizontalak, establezimenduetako enpleguaren arabera)

2012				
Sektorea	Hazi egingo da	Bere horretan jarraituko du	Txikiagotu egingo da	Ez dute egingo
GUZTIRA	9,6	43,2	18,4	28,9
Industria	16,3	44,0	19,7	20,0
Eraikuntza	2,2	31,0	29,0	37,8
Zerbitzuak	7,1	44,0	16,7	32,2
2008				
GUZTIRA	9,3	42,6	26,7	21,4
Industria	8,2	24,5	45,0	22,3
Eraikuntza	4,7	36,3	30,2	28,8
Zerbitzuak	10,6	53,3	16,3	19,8

4.4. Kanpoko merkatuetara sartzaren erronka

Lehia areagotzearekin eta eskaria murriztearekin zerkusia duten zailtasunen testuinguruan, etorkizunean Euskadin enpleguaren etorkizuna baldintzatuko duten gaietako bat nazioartekotze-prozesuarekin lotzen dena izango da. Horri buruz, nabarmentzekoak dira jarraian azalduko diren LMEko (Eskaria) datu batzuk.

4.4.1. Oraindik barneko merkatutik kanpo leku gutxitan agertzea, zabaltzen egon arren

2008 eta 2012 bitartean zabaldu egin zen EAEko ekoizpen-zentroen lurralde-jardueraren eremua. Barneko merkatuari eta Europar Batasuneko (EB) merkatuari dagokionez, aurrerakada hori establezimenduei dagokienez ikusi da, % 20,7tik % 23,6ra igo baitira EAE osoan agertzen diren ekoizpen-zentroen kopurua, eta % 13,1etik % 18,8ra estatu osoan jarduten dutenena. Aurrerakada hori EBra hedatu da, modu neurritsuagoan izan arren. Izan ere, establezimenduen % 4,7 ageri dira Europako merkatuan. 2008an, aldiz, % 3,7 ziren.

Establezimenduetako enpleguari dagokionez, aldiz, EBko eremuan soilik ikus daiteke goranzko joera. Europako merkatuan ageri diren establezimenduei lotutako enpleguaren pisu erlatiboa % 19,1etik % 20,9ra igo da. EAEko merkatuari dagokion ehuneko hori murriztu egin da (% 41,7tik % 37,8ra) eta, hain deigarria ez den modu batean, Espainiako merkatuaren kasuan (% 38,1etik % 37,6ra).

Datu horiek Euskadiko eta estatuko eremuaz haraindiko merkatuekiko lotura handiagoa izateko joera erakusten dute, baina Europako eremuari ez ezik Europako erkidegotik kanpoko merkatu batzuei zein besteei aplikatu ahal zaie⁶. Hala, EBtik kanpo ageri diren establezimenduei lotutako enpleguen proportzioak % 12,6tik % 14,1era egin du gora. Hala ere, EBtik kanpoko merkatuetan ageri direnak oraindik oso gutxi dira. Enpleguaren % 8,1 eta % 9,7 artean dira Amerikan eta Munduko gainerako aldeetan agertzeari dagokionez, eta enpleguaren % 4,4 eta % 5,2 artean Txinan eta Asiako Hego-ekialdeko gainerako lekuetan agertzeari dagokionez.

35. taula
Hainbat merkatutan ageri diren industria-establezimenduak. 2008-2012
 (Establezimenduen presentziaren eta establezimenduetako enpleguaren %a)

	Establezimenduen %a		Enpleguen %a	
	2008	2012	2008	2012
EAE	20,7	23,6	41,7	37,8
Espainia	13,1	18,8	38,1	37,6
EB	3,7	4,7	19,1	20,9
Beste alde batzuk	1,3	1,9	12,6	14,1
<i>Asiako hego-ekialdea</i>	0,3	0,5	3,6	5,2
<i>Txina</i>	0,3	0,3	3,2	4,4
<i>Ipar Amerika</i>	0,5	0,8	6,8	8,1
<i>Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika</i>	0,7	1,1	6,6	8,6
<i>Munduko gainerako lekuak</i>	0,6	0,8	8,2	9,7

Euskal enpresak kanpoaldera irteteari lotutako alderdi sektorialak aztertzean, egiaztatu da industria-adar batzuetan eta besteetan Espainiako merkaturak jarduten duten zentroein lotutako enpleguen proportzioa kasu guztietan % 50etik gorakoa izan dela 2012an, eta gehieneko kopuruak % 67,8 eta % 74,9 izan direla manufakturen industrian eta metalaren industrian. EAEtik kanpoko merkatuetara gehienbat orientatutako zerbitzuen adarretan, proportzioa merkataritza, ostalaritza eta konponketen % 31,8aren eta garraio eta komunikazioen % 43,5aren artean egon da (% 39,2 merkataritza-zerbitzuetan). Enpleguaren % 19,7 Espainiako merkatuari lotzen zaio eraikuntzan. Gutxienekoak % 12aren eta % 13,5aren artean daude hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan eta beste zerbitzu batzuetan.

EAEen Espainiako merkatuari lotutako enpleguan ikusten den beheranzko joerak diferentzia batzuk dauzka adarren arabera. Alderdi negatiboan, energia-industrian enpleguak nabarmen egin du behera (% 71,4tik % 53). 1,4 eta 2,3 puntu artean jaitsi da merkatu horri lotutako enpleguaren pisua metalaren industrian, eraikuntzan, eta zerbitzuen sektorean, hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuen adarrean eta beste zerbitzu batzuetan. Aldiz, 4 puntu egin du gora Espainiako merkatuari lotutako enpleguak merkataritza, ostalaritza eta konponketetan (% 27,8tik % 31,8ra) eta 9,5 puntu manufakturen industriari dagokiona (% 58,3tik % 67,8ra). Igoera 1,2 puntukoa izan da merkataritza-

⁶ Txosten honetan, erkidegoz kanpoko merkatuak gaur egungo Europar Batasuna osatzen duten Estaturen erkidegotik kanpokoak dira.

zerbitzuetan, eta egonkor jarraitu du garraioen eta komunikazioen adarrak Espainiako merkatuan duen presentziak.

Europako merkatuan, merkatu horretan jarduten duten establezimenduekin lotutako enpleguaren proportzioa industriaren adarretan soilik da nagusi (% 50 inguru energiaren eta manufakturen adarretan eta gehienez % 70,5 metalaren industrian). Gainerako kasuetan, enpleguen % 11,5ren eta % 12,5en artean Europako merkatuarekin lotuta daude merkataritzaren, ostalaritzaren eta konponketen adarretan, merkataritza-zerbitzuetan eta garraio eta komunikazioetan. Proportzioa % 5etik beherakoa da zerbitzuen sektoreko gainerako adarretan eta eraikuntzan. Hala ere, euskal ekoizpen-zentroek Europako merkatuan agertzeko joera gero eta nabarmenagoa gainerako adarretan ere ikusten da, energiaren industrian eta garraio eta komunikazioen adarretan izan ezik.

Espainiako eta Europako merkatuan ikusten denaren aldean, Europar Batasunetik kanpoko merkatuetan metalaren industriaren presentziak soilik eragiten dio adarreko enplegu gehienari (% 51,8). Proportzioa % 35 eta % 40 bitartekoa da energia-industrian eta manufakturen industrian (% 39,3 eta % 35,5, hurrenez hurren). Industriaren eremutik kanpo, merkataritza-zerbitzuek soilik gaintzen dute modu nabarmenean inplikaturako enpleguaren % 5a (% 8,1).

Euskal ekonomiaren adar batzuk eta besteak gero eta gehiagotan Europako erkidegotik kanpoko merkatuetara irteten ari diren une honetan, salbuespen bakarra garraio eta komunikazioen adarra izanik, irteteko bultzadarik handiena –Europatik kanpoko merkatuetan sartzeko gaitasunik handiena duten adarren artean– energia-industriari eta metalaren industriari dagokie (enpleguaren % 26tik % 39,3ra lehenaren kasuan; % 46,8tik % 51,8ra bigarrenaren kasuan). Zabalkunderako joera, dena dela, agerikoa da manufakturen industrian (% 32tik % 35,5era) eta merkataritza-zerbitzuetan (% 6,1etik % 8,1era) ere bai.

36. taula
EAEtik kanpoko merkatuetan presentzia duten establezimenduak. 2008-2012
 (Establezimenduen eta establezimenduetako enpleguaren %a)

	Establezimenduen %a						Enpleguen %a					
	Espainia		EB		Munduko gainerako aldeak		Espainia		EB		Munduko gainerako aldeak	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Jarduera-adarra												
GUZTIRA	13,1	18,8	3,7	4,7	1,3	1,9	38,1	37,6	19,1	20,9	12,6	14,1
Energia-ind. eta antzekoak	31,4	33,2	9,3	12,4	4,2	8,1	71,4	53,0	53,3	48,6	26,0	39,3
Metalaren ind.	40,3	43,0	18,4	20,2	10,4	12,8	77,3	74,9	64,1	70,5	46,8	51,8
Manufaktura-ind.	28,8	28,9	9,2	8,1	4,5	5,2	58,3	67,8	44,1	52,4	32,0	35,5
Eraikuntza	8,4	10,1	1,2	1,4	0,0	0,5	21,4	19,7	3,0	3,5	0,6	3,3
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	12,1	17,8	3,8	5,0	1,0	1,9	27,8	31,8	8,3	11,7	4,0	5,2
Garraioak/Komunikazioak	20,5	30,9	7,9	7,5	0,8	1,1	43,5	43,5	13,1	12,5	4,3	4,1
Merkataritza-zerbitzuak	12,3	21,7	2,2	3,6	1,4	1,1	38,0	39,2	9,3	11,6	6,1	8,1
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerb.	4,0	10,9	0,4	1,7	0,1	0,7	13,5	12,1	1,3	1,8	0,9	1,7
Beste zerbitzu batzuk	7,1	8,8	0,3	2,8	0,2	0,7	15,8	13,5	0,6	4,8	0,7	1,1

Ekonomian irekien dagoen sektorearen –industriaren– kanpoalderako orientazioa modu zehatzagoan aztertuta, egiaztatzen da kanpoko merkatuetan –EBko merkatuan ere bai– sartzearen pisu erlatiboak 2008-2012 laurtekoan orokorrean 5 eta 6 puntu arteko gorakada izan duela. Puntu horiek, establezimendu esportatzaileei lotutako enpleguen proportzioaren arabera neurtu dira. Salbuespena Amerikako Erdialde eta Hegoaldeari dagokie. Leku horietan, gorakada 8,7 puntukoa izan da aztertutako denbora-tartean.

Adarren arabera aztertuz ikusten da orokorrean joera ez dela hain ona energia-industrian. Arlo horretan, kanpoaldeko merkatuetan sartzeko gorakada handia –5 puntutik gorakoa– Iparramerikan soilik ikusi da. Adar horretan, Euskadiko eta Espainiako merkatuetan sartzeko beheranzko joera, 2008 eta 2012 bitartean, Europar Batasunera ere hedatu da.

Iparramerikan manufakturen industriari dagokionez izan ezik, adar horretan eta metalaren industrian aldiz nabarmen egin du gora kanpoaldera hedatzeko joerak. Gorakadak normalean 4 puntutik gorakoak izan dira 2008 eta 2012 bitartean. Orokorrean, kanpoaldera hedatzeko goranzko joera handiagoa izan da manufakturen industrian. Hala ere, adar horrek dauzka erkidegotik kanpoko merkatu batzuetara eta besteetara sartzeari buruzko adierazlerik txikiak. Enpleguaren % 20tik hurbil edo hortik beherago dauden adierazleak dira, Munduko gainerako aldeei dagokiona salbuespena dela. % 20tik beherako barneratze-maila hori metalaren industriara hedatzen da, eta modu deigarrian, energia-industriara, Txinako eta Hego-ekialdeko merkatuei dagokienez.

37. taula
Hainbat merkatutan ageri diren industria-establezimenduak. 2008-2012
 (Establezimenduetako enpleguaren %aren arabera)

Merkatua	Energia		Metala		Manufakturak		INDUSTRIA	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012
EAE	51,1	33,1	62,6	49,2	53,4	62,5	59,4	51,0
Espainia	71,4	53,0	77,3	74,9	58,3	67,8	72,1	71,0
EB	53,3	48,6	64,1	70,5	44,1	52,4	58,3	63,8
Beste eremu batzuk	26,0	39,3	46,8	51,8	32,0	35,5	41,5	46,4
Asiako hego-ekialdea	5,6	8,8	14,7	19,2	6,0	15,6	11,8	17,3
Txina	1,1	2,3	14,1	18,9	4,1	15,2	10,6	16,3
Ipar Amerika	12,7	23,3	26,8	32,7	18,3	19,9	23,6	28,6
Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika	21,8	23,3	24,8	33,5	8,9	20,6	20,6	29,3
Munduko gainerako lekuak	22,5	24,6	33,8	39,4	19,0	28,6	29,2	35,3

4.4.2. Kanpoko merkatuetan lehiatzeko baldintzen bilakaera ñabartua: establezimenduei dagokienez txarrera egin du, baina enpleguari dagokienez hobera

Euskal establezimenduak erkidegotik kanpoko merkatuetara sartzeko eragozpena jartzen duten alderdietako bat da zentro horiek teknologiari dagokionez lehian jasaten duten narriadura. Hala, 2008 eta 2012 bitartean % 21etik % 19,8ra behera egin zuen merkatu horietan lehia teknologikoan egoera abantailatsua nabarmentzen duten 5 enplegutik gorako establezimenduen proportzioak. Egoera desabantailatsua ikusten dutenen proportzioak, aldiz, gora egin du % 16,5etik % 21,9ra.

Desabantaila teknologikoaren pertzepzio horrek ere gora egin du Europako merkatuan (% 19,3tik % 23,1era egin du gora), baina kasu honetan konpentsatuta dago antzeko gorakada izan duelako abantailarekin lehiatzen direla dioten zentroyen proportzioak (% 13,1etik % 16,9ra). Estatuan, aldiz, behera egin du % 9,4tik % 8,7ra desabantaila-egoeran abiatzen direla diotenen proportzioak. Teknologia aldetik abantailarekin abiatzen direla dioten zentroyen kopuruak % 22,6tik % 29,6ra egin du gora.

Hala ere, esan behar da euskal ekonomiaren lehiakortasuna askoz hobea dela inplikaturako establezimenduetako enplegua kontuan hartzen bada. Alde batetik, abantaila- eta desabantaila-posizioen arteko aldea askoz handiagoa da Espainian (20,9 puntu, establezimenduei dagokienez, eta 35,6 puntu, enpleguei dagokienez). Beste alde batetik, euskal ekonomia abantaila-posizioetan dago enpleguari dagokionez Europako merkatuan (+4,4 puntu, establezimenduei dagozkien -6,2ren aldean,) eta, batez ere, erkidegotik kanpoko merkatuetan (+18 puntu, establezimenduen kopuruen -2,1en aldean).

38. taula
5 enplegu baino gehiago izanik lehiakideen aldean lehiakortasun teknologikoan abantaila edo desabantaila dutela dioten establezimenduen %a. 2008-2012
 (Establezimenduen %a)

	Abantailarekin		Desabantailarekin		Saldoa	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Estatuaren Gainerakoa	22,6	29,6	9,4	8,7	13,2	20,9
EB	13,1	16,9	19,3	23,1	-6,2	-6,2
Gainerako herrialdeak	21,0	19,8	16,5	21,9	4,5	-2,1
(Establezimenduetako enpleguaren %aren arabera)						
	Abantailarekin		Desabantailarekin		Saldoa	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Estatuaren Gainerakoa	38,5	42,0	6,4	6,4	32,1	35,6
EB	18,0	23,7	17,7	19,3	0,2	4,4
Gainerako herrialdeak	31,0	34,2	14,4	16,2	16,6	18,0

Ehunekoak abantailan/desabantailan daudela dioten establezimenduen artean kalkulatu dira, ED/EE baztertuta

Abantaila teknologikoa duten ekoizpen-zentroyen proportzioan, LMEk (Eskaria), hain zuzen ere, aurrerakadak erakusten ditu 2008-2012 laurtekoan. Espainiako merkatuaren kasuan, abantaila teknologikoko posizioen pisuak gora egin du % 38,5etik % 42ra. Industriaren arloan, 2008 eta 2012 bitartean industria hauek izan dute bilakaerarik onena: manufakturenak (+14,2 puntu, abantaila teknologikoari dagokionez) eta energienak (+10,8 puntu); hirugarren sektorean, egoerarik txarreko adarrak garraioak eta komunikazioak (+28 puntu), beste zerbitzu batzuk (+10,2 puntu) eta merkataritza, ostalaritza eta konponketak izan dira (+8,3 puntu). Adar batzuek, hala ere, jaitsiera erakusten dute abantaila teknologikoa duten establezimenduetako enpleguen proportzioan. Hori gertatzen da hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan (-1,1 puntu), eraikuntzan (-3 puntu) eta, hau deigarria da, merkataritza-zerbitzuetan (-8,9 puntu).

Europako merkatuan, lehiakortasun-abantaila duten establezimenduetako enpleguen proportzioa % 18tik % 23,7ra igo da 2008 eta 2012 bitartean, eta adar guztietan orokorrean hobera egin du. Kanpoalderantz irekien dauden adarren testuinguruan, nabarmentzekoa da bereziki manufacturen industriaren posizioa (+9,6 puntu). Baina nabarmentzekoa da, halaber, zerbitzuen adar guztietan ikusi den lehiakortasunaren hobekuntza, garraioak eta komunikazioak alde batera utzita (-0,1 puntu). Gorakadak 10 puntutik gorakoak ere dira merkataritza-zerbitzuetan, osasunean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan eta beste zerbitzu batzuetan. Alderdirik negatiboenean, aldiz, nabarmentzekoa da eraikuntzak duen posizioa, lehiakortasuna oso hondatuta baitago arlo horretan (-5,1 puntu).

Abantaila teknologikoa duten establezimenduetako enpleguak gora egin du % 31tik % 34,2ra 2008 eta 2012 bitartean, baina aurrerakadatik lausotuena erkidegotik kanpoko merkatuetan ikusi da. Kasu horretan, hain zuzen ere, dinamika positiboak eta negatiboak askoz modu argiagoan nahasten dira. Lehen kasuan, ezeren gainera nabarmentzekoa da metalaren eta manufacturen industriaren adarrek izandako bilakaera ona, 5,6 eta 13,7 puntuko gorakadak izan baitituzte abantaila teknologikoko posizioetan. Kanpoalderantz irekita ez dauden adarretan, era berean, nabarmentzekoa da hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrak eta beste zerbitzu batzuenak hobera egin dutela (+9 eta 25,5 puntu, hurrenez hurren).

Gainerako adarretan, hala ere, behera egin du abantaila teknologikoa duten establezimenduetako enpleguen proportzioak. Beherakada ia-ia puntu batekoa da energia-industriaren, baina 3,4 eta 7,5 puntu bitartekoa da eraikuntzan, eta hirugarren sektorean, merkataritzaren, ostalaritzaren eta konponketen, garraio eta komunikazio, eta merkataritza-zerbitzuen adarretan.

39. taula

5 enplegu baino gehiago dituzten eta lehiakideen aldean abantaila teknologikoa duten establezimenduak jarduera-adarrenden arabera. 2008-2012
(Establezimenduetako enpleguaren %aren arabera)

Jarduera-adarra	Espainia		EB		Munduko gainerako aldeak	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012
GUZTIRA	38,5	42,0	18,0	23,7	31,0	34,2
Energia-ind. eta antzekoak	37,6	48,4	24,7	26,1	31,5	30,6
Metalaren ind.	48,1	51,0	22,2	24,5	35,9	41,6
Manufaktura-ind.	37,0	51,1	25,2	34,8	30,8	44,5
Eraikuntza	22,5	19,5	16,2	11,1	20,5	16,4
Merkataritza/Ostalaritza/Konponketak	20,2	28,5	12,9	18,2	21,8	15,8
Garraioak/Komunikazioak	18,4	46,4	18,3	18,2	25,0	21,6
Merkataritza-zerbitzuak	44,1	35,2	14,6	24,9	39,1	31,5
Hezkuntza/Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	52,9	51,8	4,7	16,5	23,3	32,3
Beste zerbitzu batzuk	17,0	27,2	5,6	52,8	9,9	35,4

Ehunekoak abantailan daudela dioten establezimenduen artean kalkulatu dira, ED/EE baztertuta

Industriaren sektorean abantailako/desabantailako baterako posizioen aldaketan azterketa zehatzetik ondorioztatu ahal da manufacturen industriaren bilakaera ona duela. Adar horrek 10 puntu baino gehiago irabazi ditu 2008 eta 2012 bitartean abantaila eta desabantaila teknologikoko posizioen arteko diferentzia positiboan, bai estatuko eta Europako merkatuan, bai erkidegotik kanpoko merkatuetan.

Bilakaera on hori energia-industrian ere ikusi da estatuko merkatuan. Aldiz, bere horretan jarraitu du abantaila/desabantaila teknologikoaren diferentzialak gainerako egoeretan (energia-industriari dagokionez Estatutik kanpoko merkatuetan eta metalaren industriaren kasuan EAEtik kanpoko merkatu batzuetan eta besteetan).

40. taula

5 enplegu baino gehiagoko industriako establezimenduak, beren lehiakideen aldean abantaila teknologikoa dutenak, merkatu-motaren eta jarduera-adarraren arabera. 2008-2012
(Establezimenduetako enpleguaren %aren arabera)

Merkatua	Energia		Metala		Manufakturak		INDUSTRIA	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Estatuaren Gainerakoa	30,7	42,8	44,2	43,4	29,1	43,3	39,8	43,4
EB	13,4	13,7	3,6	4,2	6,8	18,0	5,0	7,8
Gainerako herrialdeak	17,2	18,2	23,0	23,7	13,2	32,7	20,3	25,0

Abantaila duten establezimenduen arteko diferentzia, desabantaila dutela diotenen aldean (ED/EE baztertuta)

4.4.3. Esportazio-jarduerak enpleguarentzat duen garrantzia

LMEren (Eskaria) datuek kasu guztietan erakusten dutenez, esportazio-jarduerak berebiziko garrantzia du enpleguari eusteko. Hala, Europako merkatuetan edo erkidegotik kanpoko merkatuan presentziarik ez duten establezimenduetan 2008 eta 2012 bitartean enpleguak izan duen % 11,7ko jaitsieraren aldean, beherakada % 2,1ekoa soilik izan da merkatu horietara esportazioak egiten dituzten establezimenduetan. Horren ondorioz, esportazio-ekintza Estatutik kanpoko merkatuetan duten zentroek enplegu osoan duten pisua 2008ko % 20,6tik 2012ko % 22,3ra igo da.

Bereziki garrantzitsua da erkidegotik kanpoko merkatuetara irtetea. Presentzia Espainian duten zentroek enpleguaren % 10,8 galdu dute 2008 eta 2012 bitartean, eta galera hori % 1,2koa da Europako merkatuan jarduten dutenetan. Lanpostuen bolumenaren gorakada % 6,6 eta % 7,3 bitartekoa izan da Iparramerikan eta Munduko gainerako aldeetan presentzia duten zentroetan, % 18koa Ertamerikan edo Hegoamerikan sartuta daudenetan, % 23,7koa Txinako merkatuan parte hartzen dutenetan eta gehienez % 32,4koa Asiako Hego-ekialdeko merkatuetara orientatuta daudenetan.

41. taula

Esportazio-jarduera duten establezimenduen adierazleak. 2008-2012
(Enplegu absolutuak, 2008-2012 aldakuntza eta urteko bakoitzeko enplegu osoaren gaineko %a)

	2008	2012	Ald. 2008/2012	Enpleguaren %a - 2008	Enpleguaren %a - 2012
Espainia	343.470	306.360	-10,8	38,1	37,6
EB	172.615	170.520	-1,2	19,1	20,9
Asiako hego-ekialdea	32.099	42.515	32,4	3,6	5,2
Txina	29.213	36.148	23,7	3,2	4,4
Ipar Amerika	61.506	66.013	7,3	6,8	8,1
Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika	59.077	69.699	18,0	6,6	8,6
Munduko gainerako lekuak	73.748	78.620	6,6	8,2	9,7
ESPORTATZAILEAK	185.739	181.874	-2,1	20,6	22,3
EZ ESPORTATZAILEAK	716.061	632.581	-11,7	79,4	77,7
GUZTIRA	901.801	814.455	-9,7	100	100

Esportatzaile den sektorerik garrantzitsuenari buruzko datuek, industriari buruzkoek, alegia, ez dute auzitan jartzen kanpoko merkatuetarantz irekitzeak enpleguarentzat ondorio hobekak dituenik. Hala ere, sektore horrek mota horretako merkatuetan ere dituen lehiakortasun-eragozpenak agerian geratzen dira. Izan ere, industrian, enpleguaren beherakadak establezimendu esportatzaileei ere eragiten die, baina esportatzaile ez direnei baino gutxiago (enplegu-galerak % 10,5ekoak eta % 25,5ekoak izan dira). Arazoaren atal garrantzitsu bat da EBn presentzia duten zentroek jasaten duten lanpostu-galera (-% 8,2). Enplegua mantentzea lortzen duten industria-establezimenduak erkidegotik kanpoko merkatuetan sartzea lortzen dutenak soilik dira, bereziki Amerikako Erdialde eta Hegoaldean, Txinan eta Asiako Hego-ekialdean sartzea lortzen dutenak. Mota horretako zentroetan, enpleguak gora egin du % 20 edo gehiago, 2008-2012 aldian.

Industriaren datuek erakusten dutenez, enpleguari dagokionez, kanpoko merkatuetara irtetearen joerarik onena orain arte hain irekita egon ez diren sektoreek izan dute, bereziki zerbitzuen arloan. Industriakoak ez diren sektoreetan, EBn eta/edo erkidegotik kanpoko merkatuetan presentzia duten establezimenduetako enpleguak gora egin du % 22,3 2008 eta 2012 bitartean. Esportatzaile ez diren zentroetan, aldiz, behera egin du % 9,8 (-% 5,1 Espainiako merkatura sartzen direnetan). Enpleguaren gorakadarik handienak Asiako hego-ekialdean (+% 74,1), Iparramerikan (+% 38,9) eta Munduko gainerako aldeetan (+% 44,8) sartu diren zentroekin lotzen dira.

42.a taula
Esportazio-jarduera duten industria-establezimenduetako enplegua. 2008-2012
(Enplegu absolutuak, 2008-2012 aldakuntza eta urteko bakoitzeko enplegu osoaren gaineko %a)

	2008	2012	Ald .2008/2012	% /Enplegua 2008	% /Enplegua 2012
Espainia	159.805	132.015	-17,4	72,1	71,0
EB	129.174	118.577	-8,2	58,3	63,8
Asiako hego-ekialdea	26.124	32.109	22,9	11,8	17,3
Txina	23.401	30.359	29,7	10,6	16,3
Ipar Amerika	52.235	53.139	1,7	23,6	28,6
Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika	45.646	54.409	19,2	20,6	29,3
Munduko gainerako lekuak	64.730	65.562	1,3	29,2	35,3
ESPORTATZAILEAK	138.026	123.498	-10,5	62,3	66,4
EZ ESPORTATZAILEAK	83.702	62.365	-25,5	37,7	33,6
GUZTIRA	221.728	185.863	-16,2	100	100

42.b taula
Esportazio-jarduera duten industriaz bestelako establezimenduen adierazleak. 2008-2012
(Enplegu absolutuak, 2008-2012 aldakuntza eta urteko bakoitzeko enplegu osoaren gaineko %)

	2008	2012	Ald .2008/2012	% /Enplegua 2008	% /Enplegua 2012
Espainia	183.665	174.345	-5,1	27,0	27,7
EB	43.441	51.943	19,6	6,4	8,3
Asiako hego-ekialdea	5.976	10.406	74,1	0,9	1,7
Txina	5.812	5.789	-0,4	0,9	0,9
Ipar Amerika	9.271	12.874	38,9	1,4	2,0
Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika	13.431	15.291	13,8	2,0	2,4
Munduko gainerako lekuak	9.018	13.058	44,8	1,3	2,1
ESPORTATZAILEAK	47.713	58.376	22,3	7,0	9,3
EZ ESPORTATZAILEAK	632.359	570.216	-9,8	93,0	90,7
GUZTIRA	680.072	628.592	-7,6	100	100

4.4.4. Esportazio-jarduerarentzako bultzada handiagoaren aurreikuspena etorkizunerako

Aztertutako testuinguruan, bereziki garrantzitsua da ikustea –zerikusia duen enpleguari dagokionez– beren esportazioak epe laburrean handitzea planteatu duten 5 enplegu baino gehiagoko establezimenduen proportzioak 2008ko % 3,9tik 2012ko % 10,1era gora egin duela.

Esportazio-jarduera nabarmen handitzeko joera sektore guztietan ageri den arren, industrian da deigarriena. Sektore horretan, esportazioak handitzea aurreikusi duten establezimenduetan enpleguak gora egin du % 9,4tik % 22,6ra. Datu horrek agerian jartzen du sektorearen jarduera epe ertainean suspertzeko iguripena.

43. taula

5 enplegu baino gehiagoko establezimenduak, jarduera-sektorearen eta esportazioek izango duten bilakaerari buruzko aurreikuspenen arabera. 2008-2012 (% horizontalak, establezimenduetako enpleguaren arabera)

	2012			
	Hazi egingo da	Bere horretan jarraituko du	Txikiagotu egingo da	Ez dute egingo
Industria	22,6	47,8	9,9	19,8
Eraikuntza	3,5	14,9	4,3	77,3
Zerbitzuak	4,9	18,6	2,2	74,2
Guztira	10,1	27,1	4,7	58,1
	2008			
Industria	9,4	30,5	35,5	24,7
Eraikuntza	0,5	12,4	4,2	82,8
Zerbitzuak	1,4	23,7	3,0	71,9
Guztira	3,9	24,9	13,5	57,7

Inkesta egin den uneko egoerarekin alderatuta hurrengo seihilekoan espero den bilakaera

5. BESTE ALDERDI BATZUK

5.1. Gora egin dute prestakuntza eskuratzeko aukerak, baina behera egin du prestakuntza-orduen bolumenak

2012an mantendu egin da EAEko ekoizpen-zentroetan prestakuntza eskuratzeari buruzko adierazleek historian izan duten goranzko joera. Errealitate hori, prestakuntza-jarduerak dituzten establezimenduen pisu erlatibo gero eta handiagoan ikusi da, baita prestakuntzara joan diren langileen eta enplegu-bolumenaren arteko erlazioan ere. Lehen kasuan, parte hartzen duten zentroen adierazleak 2000 eta 2004ko % 22 inguruko kopuruetatik 2008ko % 26,7ra eta 2012ko % 32,8ra igo da; prestakuntzara joan diren langileen eta enplegu-bolumenaren arteko erlazioari dagokionez, adierazleak 2000ko % 36tik 2004ko % 53,4ra, 2008ko % 60ra eta 2012ko % 64,9ra egin du gora.

Hala ere, prestakuntzaren intentsitateak behera egin du 2008 eta 2012 bitartean. Denbora-tarte horretan, prestakuntza-jardueretara joan den pertsona bakoitzaren ordu-kopuruak behera egin du 14 ordutatik 13,3tara. Enplegu bakoitzeko orduen bolumenak, aldiz, egonkortzeko joera izan du (2012an 8,6 eta 2008an 8,4).

Gainera, diferentzia sektorial nabarmen batzuk ikusten dira. Hala, sektore batzuetan eta besteetan gora egin du prestakuntza eskuratzeko aukeraren gorakadak, baina ez da gauza bera gertatu bertaratutakoen ehunekoarekin, enpleguarekin alderatuta. Industria-sektoreak 2008 eta 2012 bitartean izandako goranzko joeraren aldean (% 54,7tik % 75,3ra), zerbitzuen adierazlea egonkortu da (% 64,1 2012an, eta % 64,2 2008an). Eraikuntzan, berriz, behera egin du (% 45,4tik % 42,2ra).

Eraikuntzan, beste alde batetik, nabarmen egin du gora enplegu bakoitzeko eta bertaratutako langile bakoitzeko prestakuntza-orduen kopuruak. Joera hori industriaren beheranzko joeraren eta zerbitzuen egonkortzearen aurka doa. Bertaratutako langile bakoitzeko orduen adierazlea erreferentzia gisa hartuta, ikusten da adierazle hori 2008 eta 2012 bitartean 11,6tik 17,4ra igo dela eraikuntzan, 12,5-13 inguruan mantendu dela zerbitzuetan, eta 19,4tik 13,4ra murriztu dela industrian.

44. taula
Prestakuntza eskuratzeari buruzko adierazleak, jarduera-sektorearen arabera. 2008-2012

	GUZTIRA		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Adierazleak								
Establezimenduak								
Kopuru absolutua	51.079	57.789	4.000	5.089	5.692	6.416	41.387	46.284
Establezimenduen %a	26,7	32,8	26,9	34,9	20,9	27,8	27,8	33,3
Bertaratuak								
Kopuru absolutua	541.255	528.342	121.251	140.021	40.554	28.441	379.451	359.879
enplegu bakoitzeko bertaratuen %a	60,0	64,9	54,7	75,3	45,4	42,2	64,2	64,1
Prestakuntza-orduenak								
Kopuru absolutua	7.558.292	7.029.604	2.353.569	1.881.998	470.972	494.360	4.733.752	4.653.247
Orduak/Bertaratuak	14,0	13,3	19,4	13,4	11,6	17,4	12,5	12,9
Ordu/Enplegu	8,4	8,6	10,6	10,1	5,3	7,3	8,0	8,3

5.2. Orokorrean hobera egin dute modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazle erlatiboek, baina testuinguruak ez du utzi ikusten kopuru absolutuek txarrera egin dutela

Euskal ekonomiaren modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazleen baterako bilakaera aztertzean, orokorrean esan daiteke 2008-2012 denbora-tartean hobekuntza egon dela termino erlatibotan. Kasu bakoitzean 5 enplegu baino gehiagoko ekoizpen-zentroetan inplikaturako enpleguen proportzioa erreferentzia gisa hartuta, errealitate hori bereziki agerikoa da honako alderdi hauei dagokienez:

- * Informatizazio-prozesuak aztertu diren EAEko ekoizpen-zentro ia guztiei eragiten die. Testuinguru horretan, gora egin du ekoizpen-prozesu guztiak informatizatuta dituzten establezimenduei lotutako enpleguen ehunekoak (% 67,8tik % 75,3ra).
- * Aldi berean gora egin du webgunearen erabilerak zentroetan (inplikaturako zentroen % 75,8tik % 88ra).
- * Gora egin du I+G arloko jarduera iraunkorren bat duten zentroekin lotutako enpleguen ehunekoak (% 35,9tik % 39,8ra).
- * Gora egin du kalitate-ziurtapena duten zentroetako enpleguaren bolumenak (% 59tik % 65,1era).
- * Gora egin du kanpoko merkatuetako presentziak (enpleguaren % 26,3tik % 28,9ra EBri dagokionez; % 17,8tik % 20,1era erkidegotik kanpoko merkatuei dagokienez).

Hala ere, datu horiek askoz bilakaera negatiboa ezkututzen dute kasu bakoitzean 2008an eta 2012an inplikaturako enpleguen bilakaera absolutua konparatzen denean. Beraz, kontuan hartzen da aipatu laurtekoan egondako enpleguaren beherakadaren eragina. Horrenbestez, erreferentzia-urte bietan inplikaturako enpleguen kopuru absolutuaren aldakuntza-ehunekoa aztertuta, egiaztatzen da aztertutako adierazleen artean termino absolututan webgunea duten establezimenduei lotutako enpleguen bolumenak soilik egin duela gora (+% 3).

Kopuru absolutuen aldakuntza-ehunekoak, aldiz, jaitsiera txikiak erakusten ditu gainerako adierazle ia guztietan: -% 1,4 ekoizpen-przesuak guztiz informatizatuta duten zentroetako enpleguen kopuruan, -% 1,8 I+G egiten dutenetan, -% 2,1 kalitate-ziurtapena dutenetan eta -% 2,6 Europar Batasuneko merkatuetara sarbidea dutenen artean. Inplikaturako enpleguei dagokienez, 2008 eta 2012 bitartean egonkor mantendu den bakarra EBtik kanpoko merkatuetarako sarbidea izan da, ia-ia % 0,2ko jaitsiera izan baitu aztertutako enpleguen kopuruan.

Beraz, azaldutako datuek erakusten dutenez, termino erlatibotan adierazle askok hobera egin duten arren, Euskadin 2008-2012 aldian egon den enplegu-beherakada orokorraren ondorioz benetan behera egin du modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-prozesuen adierazle nagusiekin lotutako lanpostuen bolumenak.

Errealitate horrekin batera, gainera, adierazle batzuek txarrera egin dute termino erlatibo zein absolututan. Hala, 2008 eta 2012 bitartean behera egin du enpleguen garrantziak azken lau urteetan ekoizpen-prozesuetan aldaketak egin dituzten zentroetan (% 26,9tik % 24,6ra) edo produktuetan berrikuntzak sartu dituzten zentroetan (% 29,7tik % 26,2ra). Bilakaera horren ondorioz, aipatutako laurtekoan prozesu horiekin lotutako lanpostu-kopuruak % 18,7ko eta % 21,7ko beherakada izan du. 2008 eta 2012 bitartean ingurumen-berrikuntzak egin dituzten zentroetako enpleguen proportzioak gora egin du (% 35,8tik % 36,4ra), baina inplikaturako lanpostuen kopuru absolutuaren aldakuntzak kasu horretan ere adierazten du laurtekoan beherakada nabarmena egon dela (-% 9,8).

Prozesu horien guztien funtsa, enplegu-kopuru orokorren beherakadarekin lotutako prozesua barne dela, euskal establezimenduen egoeraren okertzea da, ekoizpen-ahalmen errealari dagokionez (hau da, ahalmen teknologikoa ez ezik eskariaren eta salmenten dinamika ere kontuan hartuta). 2008an, aurreko lau urteetan ekoizpen-ahalmena handitu zuten zentroetako enpleguak % 50,9 ziren. 2012an, aldiz, proportzio horrek behera egin du % 27,9ra arte. Horrek esan nahi du inkesta-prozesuaren aurreko lau urteetan ekoizpen-ahalmen erreala handitu zuten zentroetako enpleguaren bolumenak 2008 eta 2012 bitartean % 51,4 egin duela behera. Bilakaera horrek erakutsi egiten du euskal ekonomiaren ekoizpen-ahalmenaren erabilera 2008 eta 2012 bitartean zer nolako mugak egon diren.

45. taula
Modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazleak. 2008-2012
5 enplegu baino gehiagoko establezimenduak

(Kopuru absolutuak, parte hartu dutenen %a eta 2008-2012 aldakuntza, establezimenduen eta enpleguen arabera)

Adierazleak	Establezimenduak				Aldakuntza absolutuaren %a 2008-2012	Enpleguak				Aldakuntza absolutuaren %a 2008-2012
	Absolutuak		Inplikaturako en %a			Absolutuak		Inplikaturako en %a		
	2008	2012	2008	2012		2008	2012	2008	2012	
Informatizazio partziala edo osoa	23.910	21.872	95,5	96,1	-8,5	616.286	542.266	98,4	97,6	-12,0
Informatizazio osoa	14.075	14.728	56,2	64,7	4,6	424.537	418.631	67,8	75,3	-1,4
Webgunea	14.156	15.531	56,5	68,3	9,7	474.735	488.878	75,8	88,0	3,0
Aldaketa ekoizpen-prozesuetan (1)	3.614	2.477	14,4	10,9	-31,5	168.359	136.841	26,9	24,6	-18,7
I+G egiten du	4.745	4.671	18,9	20,5	-1,6	225.056	221.111	35,9	39,8	-1,8
Produktuen berrikuntza (1)	3.401	2.701	13,6	11,9	-20,6	185.952	145.604	29,7	26,2	-21,7
Ingurumen-berrikuntzak (1)	4.972	4.481	19,9	19,7	-9,9	224.144	202.139	35,8	36,4	-9,8
Kalitate-ziurtapena	9.031	8.997	36,1	39,5	-0,4	369.769	361.846	59,0	65,1	-2,1
EBn presentzia izatea	3.233	3.572	12,9	15,7	10,5	164.570	160.333	26,3	28,9	-2,6
EBtik kanpo presentzia izatea	1.664	1.902	6,6	8,4	14,3	111.811	111.593	17,8	20,1	-0,2
Ekoizpen-ahalmena handitzea (1)	10.770	5.175	43,0	22,7	-51,9	319.213	155.038	50,9	27,9	-51,4

(1) Azken 4 urteetan izandako aldaketa

TAULEN ERANSKINA

EAEko ekonomiaren ezaugarriei buruzko taulak: Establezimenduak eta enpleguak

1.1 taula.
Establezimenduak tamainaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta lau urtez behingo aldaketa, ehunekoetan)

Tamaina	2000		2004		2008		2012		2000/2004	2004/2008	2008/2012
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakun-tza (%-tan)	Aldakun-tza (%-tan)	Aldakun-tza (%-tan)
GUZTIRA	166.647	100	174.471	100	191.233	100	176.426	100	4,7	9,6	-7,7
3 baino gutxiago	126.355	75,8	130.112	74,6	143.095	74,8	130.460	73,9	3,0	10,0	-8,8
3 eta 9 bitartean	27.999	16,8	30.695	17,6	33.442	17,5	31.814	18,0	9,6	8,9	-4,9
10 eta 49 bitartean	10.613	6,4	11.708	6,7	12.681	6,6	12.117	6,9	10,3	8,3	-4,4
50 eta 99 bitartean	1.006	0,6	1.237	0,7	1.269	0,7	1.327	0,8	23,0	2,6	4,6
100 eta 249 bitartean	460	0,3	500	0,3	502	0,3	513	0,3	8,7	0,4	2,2
250 eta 499 bitartean	139	0,1	154	0,1	168	0,1	122	0,1	10,8	9,1	-27,4
500 eta 999 bitartean	46	0,0	45	0,0	59	0,0	54	0,0	-2,2	31,1	-8,5
1000 edo gehiago	29	0,0	17	0,0	17	0,0	19	0,0	-41,4	0,0	11,8

1.2 taula
Enplegua, establezimenduaren tamainaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta lau urtez behingo aldaketa, ehunekoetan)

Tamaina	2000		2004		2008		2012		2000/2004	2004/2008	2008/2012
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakun-tza (%-tan)	Aldakun-tza (%-tan)	Aldakun-tza (%-tan)
GUZTIRA	745.121	100	837.752	100	901.801	100	814.455	100	12,4	7,6	-9,7
3 baino gutxiago	163.800	22,0	174.599	20,8	189.169	21,0	167.157	20,5	6,6	8,3	-11,6
3 eta 9 bitartean	131.718	17,7	148.754	17,8	158.482	17,6	152.820	18,8	12,9	6,5	-3,6
10 eta 49 bitartean	187.165	25,1	227.071	27,1	249.229	27,6	209.711	25,7	21,3	9,8	-15,9
50 eta 99 bitartean	67.428	9,0	88.270	10,5	90.514	10,0	88.667	10,9	30,9	2,5	-2,0
100 eta 249 bitartean	66.521	8,9	78.213	9,3	77.785	8,6	80.446	9,9	17,6	-0,5	3,4
250 eta 499 bitartean	50.846	6,8	53.786	6,4	57.493	6,4	41.108	5,0	5,8	6,9	-28,5
500 eta 999 bitartean	30.654	4,1	29.088	3,5	39.232	4,4	35.322	4,3	-5,1	34,9	-10,0
1000 edo gehiago	46.989	6,3	37.971	4,5	39.896	4,4	39.224	4,8	-19,2	5,1	-1,7

1.3 taula
Establezimenduak eta enplegua, establezimendu-motaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta lau urtez behingo aldaketa, ehunekoetan)

Mota	2000		2004		2008		2012		2000/2004	2004/2008	2008/2012
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza (%-tan)	Aldakuntza (%-tan)	Aldakuntza (%-tan)
GUZTIRA	166.647	100	174.471	100	191.233	100	176.426	100	4,7	9,6	-7,7
Sektore publikoa	3.044	1,8	3.000	1,7	2.935	1,5	2.643	1,5	-1,4	-2,2	-9,9
Gizarte-ekonomia	2.407	1,4	3.293	1,9	3.398	1,8	3.425	1,9	36,8	3,2	0,8
Sektore pribatuko	161.196	96,7	168.178	96,4	184.901	96,7	170.358	96,6	4,3	9,9	-7,9

Enplegua

Mota	2000		2004		2008		2012		2000/2004	2004/2008	2008/2012
